



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEKO UDALERRIETAN HIRI HONDAKINAK (PAPERA, KARTOIA, PILAK ETA ONTZI ARINAK) GAIKA BILDU ETA GARRAIATZEKO ZERBITZU PUBLIKOA EMAKIDA BIDEZ KONTRATATZEKO LEHIAKETA ARAUTZEN DUTEN ESKAKIZUN TEKNIKOEN ORRIAK.

AURKIBIDEA

1. BALDINTZEN ORRIEN OBJEKTUA

2. LURRALDE-EREMUA

3. DERRIGORREZKO ZERBITZUAK

4. PAPERA ETA KARTOIA BILDU ETA GARRAIATZEKO ZERBITZUA

- 4.1. Papera eta kartoia gaika biltzea
 - 4.1.1. Bildu behar diren hondakinak
 - 4.1.2. Uzteko lekua
 - 4.1.3. Biltzeko modalitatea
 - 4.1.4. Biltzeko ordutegia
 - 4.1.5. Biltzeko maiztasuna
 - 4.1.6. Biltzeko egutegia
 - 4.1.7. Lurpeko edukiontziak biltzea
 - 4.1.8. Paperontzi bereziak
 - 4.1.9. Biltzeko lanak nola egin
- 4.2. Papera eta kartoia biltzeko edo sailkatzeko planta batera garraiatu
- 4.3. Zerbitzuaren antolamendua

5. ONTZI ARINAK BILDU ETA GARRAIATZEKO ZERBITZUA

- 5.1. Ontzi arinak gaika biltzea
 - 5.1.1. Bildu behar diren hondakinak
 - 5.1.2. Uzteko lekua
 - 5.1.3. Biltzeko modalitatea
 - 5.1.4. Biltzeko ordutegia
 - 5.1.5. Biltzeko maiztasuna
 - 5.1.6. Biltzeko egutegia
 - 5.1.7. Lurpeko edukiontziak biltzea
 - 5.1.8. Biltzeko lanak nola egin
- 5.2. Ontzi arinak sailkatzeko Legazpiko plantara garraiatu
- 5.3. Zerbitzuaren antolamendua

6. PILAK BILDU ETA GARRAIATZEKO ZERBITZUA

7. EDUKIONTZIAK JARRI, GARBITU, MANTENTZE-LANAK EGIN ETA ORDEZKATZEKO ZERBITZUA

- 7.1. Edukiontziak jarri
 - 7.1.1. Edukiontzien kokapen azterketa
-



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

- 7.1.2. Jarri behar diren edukiontziak
- 7.1.3. Edukiontzien banaketaren maila
- 7.1.4. Jarri behar diren edukiontzien kopurua eta ezaugarriak
- 7.1.5. Dauden edukiontzien aprobetxamendua
- 7.1.6. Erabiltzen ez diren edukiontziak kendu eta eskuratzea
- 7.1.7. Edukiontzien banaketa
- 7.1.8. Gertakari bereziak
- 7.1.9. Urte sasoiaren arabera gorabeherak
- 7.1.10. Edukiontziak biltegitzeko eremua
- 7.1.11. Hondakinak uzteko eremuak zehaztea
- 7.2. Edukiontziak garbitu
 - 7.2.1. Objektua
 - 7.2.2. Garbitzeko lekua
 - 7.2.3. Garbitzeko maiztasuna
 - 7.2.4. Edukiontziak kanpotik garbitzeko lanen deskribapena
 - 7.2.5. Edukiontziak barrutik garbitzeko lanen deskribapena
 - 7.2.6. Garbitzeko ordutegia
- 7.3. Edukiontzien zainketa eta mantentze-lanak
- 7.4. Edukiontziak ordezkatu
- 7.5. Edukiontziak jarri, lekuz aldatu eta antzeko lanak egitea
- 7.6. Hondakinak biltzeko eremuen eragin esparrua
- 7.7. Edukiontziak jarri, garbitu, mantentze-lanak egin eta ordezkatzeko lanen antolamendua

8. INSTALAZIO FINKOAK

9. LANGILEAK

10. IBILGAILUAK ETA MAKINAK

11. KONTROLATZEKO SISTEMAK

- 11.1. Aplikazio informatikoa

12. BITARTEKO MATERIALAK ITZULTZEA

13. KALTEAK BESTE BATZUEI

14. ZERBITZUARI BURUZKO BESTE ALDERDI BATZUK

15. USTIAKETA EGITASMOA



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

ERANSKINAK

I. ERANSKINA: Urola Kostako Udal Elkartearen lurralde eremuan lehiaketa egiteko unean jarrita dauden paper, kartoi, ontzi arin eta pilen edukiontzien zerrenda.

II. ERANSKINA: Udal Elkartearen lurralde eremuan jarritako lurpeko edukiontzien zerrenda (papera, kartoia eta ontzi arinak).

III. ERANSKINA Urola Kostako Udal Elkartearen lurralde eremuan jarritako paper, kartoi, ontzi arin eta pilen edukiontziak husteko une honetako maiztasunak.

IV. ERANSKINA: “Hiri” jatorria duen kartoia bildu eta garraiatzeko zerbitzuak zerbitzua eskaini behar dien erakunde publikoen gutxieneko zerrenda. Une honetako biltzeko maiztasuna.

V. ERANSKINA: Biztanleriari buruzko datuak.

VI. ERANSKINA: Herrietako jaiak.

VII. ERANSKINA: Urola Kostako Udal Elkartearen lurralde eremuko hiri hondakinak sortzearen inguruko datuak.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

1. BALDINTZEN ORRIEN OBJEKTUA

Baldintzen orri hauen helburua da Urola Kostako Udal Elkarteko bost udalerrietan (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaian) hiri hondakin solidoak (papera, kartoia, pilak eta ontzi arinak) bildu eta garraiatzeko zerbitzu publikoa administrazio-emakida bidez kudeatzeko lehiaketaren eskakizun teknikoak ezartzea.

2. LURRALDE-EREMUA

Baldintzen orri hauen 1. baldintzan zehaztutako zerbitzuak Urola Kostako Udal Elkartearen lurralde eremu osoan eskainiko dira, hain zuzen ere Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaian.

3. DERRIGORREZKO ZERBITZUAK

Jarraian adierazten diren zerbitzuak DERRIGORREZKO ZERBITZUAK dira:

- a) Baloriza daitezkeen hondakinak gaika bildu eta garraiatu:
 - Papera eta kartoia gaika bildu eta garraiatu
 - Ontzi arinak gaika bildu eta garraiatu
 - Pilak gaika bildu eta garraiatu

- b) Edukiontzia jarri, garbitu, mantentze-lanak egin eta ordezkatu:
 - Edukiontzia jarri
 - Edukiontzia garbitu
 - Edukiontzien mantentze-lanak egin
 - Edukiontzia ordezkatu
 - Edukiontzia jarri, lekuz aldatu eta antzeko lanak egin

- c) Instalazio finkoak zaindu eta mantentzeko lanak egin

Zerbitzu horiek OINARRIZKO ESKAINTZA osatzen dute; oinarrizko eskaintza horrentzat eskaintza tekniko eta diru-eskaintza bat egin behar da, eskaintza hobeto ulertu ahal izateko bereiz adieraziko badira ere. Oinarrizko eskaintza horretan Udal Elkarteak egoki irizten dituen aldaketak egingo ditu; esleipendunak aldaketa horiek onartu eta burutu egingo ditu.

Enpresa lehiatzaileei dagokie sistemarik eraginkorrenak proposatzea, gorago aipatutako zerbitzuak proposatutako bitartekoekin bideratzeko. Zehaztasun eta xehetasun osoz adieraziko dira zerbitzuak antolatzeke era, bitartekoak eta langileak.

Ondoren datozen baldintzetan daude zehaztuta lehiaketaren objektu diren zerbitzu bakoitzean bete behar diren gutxieneko eskakizunak. Gutxieneko eskakizun horietan oinarritu behar dute lehiatzaileek beren oinarrizko eskaintza, baldintzen orrietako 3. baldintzan ezarritakoarekin bat etorritz.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

4. PAPERA ETA KARTOIA BILDU ETA GARRAIATZEKO ZERBITZUA

Zerbitzu horretan honakoak sartzen dira:

- a) Urola Kostako Udal Elkartearen lurralde eremuko udalerrietan papera eta kartoia gaika biltzea, hondakinak biltzeko eremuetan jarrita dauden kolore urdineko edukiontzi monomaterialen bidez.
- b) Paper eta kartoi hori papera eta kartoia bildu edo sailkatzeko planta batera garraiatzea; Urola Kostako Udal Elkarteak izendatuko du planta hori.

4.1. Papera eta kartoia gaika biltzea

4.1.1. Bildu behar diren hondakinak

Edukiontzien bidez papera eta kartoia biltzeko zerbitzua honetan datza: batetik, hondakinen sortzaileek bereizi eta kalean horretarako jarritako kolore urdineko edukiontzi monomaterialetan utzitako papera eta kartoia gaika eta beste hiri hondakinetatik bereiz biltzea, eta, bestetik, Udal Elkarteak izendatutako papera eta kartoia bildu edo sailkatzeko instalazioetara garraiatzea.

Zerbitzua Udal Elkarteko lurralde eremuan papera eta kartoia sortzen dutenei eskaintzen zaie, batez ere honakoei: etxebizitzan sortutako papera eta kartoia, dendak, ikastetxeak, erakundeak, administrazio-zentroak, bulegoak, enpresatako atal administratiboak, eta oro har, papera eta kartoia sortzen duen merkataritza eta zerbitzu sektoreetako edozein jarduera, bere borondatez papera eta kartoia berreskuratu eta birziklatzen parte hartu nahi izanez gero.

4.1.2. Uzteko lekua

Paper eta kartoi hondakinak utziko dira borondatez eta ordutegi mugarik gabe, kalean jarritako kolore urdineko eta 3 m³-ko edukierako edukiontzi monomaterialetan.

Edukiontziak, ahal dela, ALBOTIK KARGATZEKOAK izango dira. Eremu jakin batean horrelako edukiontziak jartzea ezinezkoa baldin bada edo ez bada komeni, kolore urdineko edukiontzi normalizatuak erabiliko dira, 1.000 litroko edukiera, estalki laua eta atzetik kargatzen direnak. Hori gertatzen bada, kalean edukiontzi gehiegi jartzea ekiditeko, eremu batean gehienez 1.000 litroko 3 edukiontzi jarriko dira, husteko beharrezko den maiztasunarekin.

Une honetan albotik kargatzen den edukiontzia jarrita duen eremuan jartzen diren edukiontziek ez dute ixteko sistemarik izango. Alabaina, iglu erako edukiontziak dituzten eremuetan jartzen diren edukiontziek, alde batetik, ixteko sistema izango dute, erabiltzaileek goiko estalkia eskuz irekitzea eraginkortasunez saihesteko, eta, beste alde batetik, hondakinak botatzeko zuloa izango dute (gehienez ere 250 mm-koa).

Lehiatzaileek honako alderdiak zehaztuko dituzte beren proposamenetan: edukiontzirik egokienak (kopuru, edukiera eta fabrikazio-materialak), kokapen zehatza (aurrerago ematen diren jarraibideen argitara).

Edukiontzi urdinak beira, ontzi arin eta hiri hondakinak nahasian jasotzeko edukiontzien ondoan jarriko dira ahal den guztietan, eta horiek guztiek hondakinak biltzeko eremua osatuko dute. Edukiontzi guztiak eremu berean jartzea ezinezkoa baldin bada, edukiontzi urdinak beira eta ontzi arinak jasotzeko edukiontzien ondoan jarriko dira.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Lehiaketa hau burutzen ari den unean papera eta kartoia gaika biltzeko Urola Kostako Udal Elkartearen lurralde eremuan jarritako edukiontziak iglu erakoak dira, oinarria zirkularra dute eta kako bikoitzeko garabiarekin husten dira. Esleipendunak edukiontzi horiek ordezkatzeko ditu albotik kargatzen diren edukiontzi berriekin, edukiontzia jartzeko leku edo eremuak ezinezko egiten ez duenean edo komeni ez denean izan ezik. **I. ERANSKINEAN** eta **III. ERANSKINEAN** zehaztuta dator Urola Kostako Udal Elkarte osatzen duten udalerrri bakoitzean edukiontziak non jarrita dauden eta orain arte gutxienez zein maiztasunekin hustu diren.

Zerbitzua eraginkortasunez eskaintzeko behar diren giza baliabide nahiz bitartekoak ebaluatzeko, lehiatzaileek beren eskaintzetan aurreikusi behar dituzte lehiaketa egiteko unean jarrita dauden paper edukiontziak, edukiontzien banaketaren azterketaren ondorioz jarri bide direnak eta kontratua indarrean dagoela beste eremu batzuetan jar litezkeenak.

4.1.3. Biltzeko modalitatea

Paper eta kartoi hondakinak bildu eta garraiatuko dira zapaltzeko sistema eta edukiontziak albotik kargatzeko sistemak dituzten ibilgailuen bidez. Osagarri gisa kargatzeko beste sistema batzuk dituzten ibilgailuak erabiliko dira, eta, beharrezkoa baldin bada, lan horiek errazteko ibilgailu arinak.

Hasieran eremu jakin batzuetan albotik kargatzeko edukiontziak jarri ez (bestelako eragozpenengatik edo komeni ez zelako), eta, kontratua indarrean dagoen epearen barruan, egoera aldatzearen ondorioz Urola Kostako Udal Elkarteak albotik kargatzeko edukiontziak jartzeko eskatzen badu, esleipendunak jarrita dauden edukiontzien ordeztatik kargatzeko edukiontziak jarriko ditu. Halaber, zerbitzuak beste behar batzuk baldin baditu, esleipendunak albotik kargatzen diren edukiontzien kopurua handitu beharko du.

Hori gertatzen bada, esleipendunak diru-ordaina jasotzeko eskubidea izango du. Ordain hori kalkulatu da proposamenean edukiontziak eskuratzeko eskainitako unitate prezioen arabera, metatutako KPIarekin. Urola Kostako Udal Elkarteak, komenigarri iritziz gero, edukiontziak zuzenean erosi eta esleipendunaren eskura jarriko ditu.

4.1.4. Biltzeko ordutegia

Nolanahi ere den, lehiatzaileek beren eskaintzetan Udal Elkarte osatzen duten udalerrietara eta proposatutako bilketa sistemetara ondoen egokitzen diren ordutegiak proposatu ahal izango dituzte. Hala ere, Urola Kostako Udal Elkartearen Zerbitzu Teknikoek eskumena izango dute proposamena aldatzeko eta esleipendunak aldaketa horiek onartu egin beharko ditu. Horretarako, kontuan hartu beharko dira udalerrien eta udalerria osatzen duten auzo eta guneen neurria, sortzen duten hondakinen kopurua eta zerbitzuak eragotz ditzakeen eta, bidenabar, zerbitzua burutzea galaraz dezaketen gertakariak (asteko azokak, ibilgailuen trafiko handia, herritarren jarduerak, ibilgailu eta oinezkoen mugimendua ikastetxe, enpresa eta antzekoen sarrera eta irteeratan).

4.1.5. Biltzeko maiztasuna

Paper eta kartoi edukiontziak husteko maiztasunak bermatu behar du uneoro edukiontzi batean dagoen hondakinak edukiontzien edukieraren %75 ez gainditzea. Beraz, edukiontzi bakoitzak husteko maiztasun jakin bat izango du.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Esleipendunak egokitu egin behar du jarrita dauden nahiz kontratuak irauten duen epearen barruan jar litezkeen edukiontziaak husteko hasieran ezarritako maiztasuna edukiontziaak betetzeko erritmoa kontuan hartuta, eta maiztasuna areagotu egingo du beharrezkoa baldin bada, papera eta kartoia uzteko edukiontzietan beti lekua egon dadin. Horrek ez du esleitzeko prezioa inola ere areagotuko.

Esleipendunak zerbitzua indartzeko behar diren neurriak aurreikusi behar ditu paper eta kartoi gehien sortzen den uneetarako, une horietan papera eta kartoia biltzeko bitarteko arruntak ez baitira aski izango.

Argibide gisa, baldintzen orri hauen **III. ERANSKINEAN** dator une honetan jarrita dauden paper eta kartoi edukiontziaak husteko gutxieneko maiztasuna.

4.1.6. Biltzeko egutegia

Lehiatzaileek beren eskaintzan edukiontziaak husteko gutxieneko maiztasunari, Udal Elkarteak osatzen duten udalerrien ezaugarriak eta proposatutako gaika biltzeko sistemei ondoen egokitzen zaien bilketa egutegia proposatu behar dute.

Asteburuetan azkarren betetzen diren eta aurrez ezarritako betetzeko muga maiz gainditzen duten edukiontzien lehentasuna izango dute biltzeko egutegian. Edukiontzi horientzat egunak gordeko dira egutegian, betetzea ekiditeko, eta egutegia horretarako beharrezkoa den eran antolatuko da.

Lehiatzaileek papera eta kartoia biltzeko egutegia eta ordutegia beste bilketa zerbitzuen egutegi eta ordutegiarekin koordinatuko dute, zerbitzua eraginkorragoa izateko.

Papera eta kartoia biltzeko esleipendunak proposatu eta Udal Elkarteak onartzen duen egutegia zehatz-mehatz bete behar da. Esleipendunaren betebeharra da egutegi horretan zehaztutako egunetan, asteleheneetik igandera, hondakinak biltzea, aste barruko jaiegunak barne. Eguberri eguna (abenduak 25) eta urte berri eguna (urtarrilak 1) salbuespen izango dira. Bi egun horiei dagozkien bilketa zerbitzuak aurreko egunean edo hurrengo egunean egingo dira, horri buruz Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoek ematen dituzten jarraibideen arabera.

Erakunde publikoen erabilera eskusiboko edukiontziaak husteko gutxieneko maiztasuna **IV. ERANSKINEAN** dago adierazita, Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoen eskariz maiztasun hori areagotzeari kalterik egin gabe, erakunde horietan sortzen den papera eta kartoiaren kopurua handitu delako.

4.1.7. Lurpeko edukiontzia biltzea

Esleipendunaren betebeharra da papera eta kartoia jasotzeko jarrita dauden (**II. ERANSKINEAN** adierazita) eta etorkizunean Udal Elkartearen lurralde eremuan jar litezkeen lurpeko edukiontzia biltzea, esleitzeko prezioa aldatu gabe.

Lurpeko edukiontzi-eremuek igotzeko sistema izango dute eta edukiontzia bateragarriak izango dira albotik kargatzeko edo garabia eta kako bikoitzarekin goitik kargatzeko sistemekin.

4.1.8. Paperontzi bereziak



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Zerbitzuaren osagarri gisa, esleipendunaren betebeharra izango da paperontzi bereziak biltegitatu eta eskatzen duten erakundeei (ikastetxe, udaletxe, enpresa eta abar) banatzea, jatorrian bertan papera bereiz bildu eta gero birziklatzeko. Urola Kostako Udal Elkarteak eskuratuko dizkio paperontziak esleipendunari.

4.1.9. Biltzeko lanak nola egin

Biltzeko lantaldeak paper eta kartoi edukiontziak hustuko ditu horretarako ezarritako egutegiaren arabera, edukiontzien eremura joandakoan edukiontziak duen betetze-maila edozein izanik ere.

Esleipendunaren betebeharra da edukiontzia albotan, lurtean, nahiz gainean dagoen paper eta kartoi hondakin oro biltzea, hor egotearen arrazoia edozein dela ere.

Esleipendunak arretaz egingo ditu zerbitzuari dagozkion lanak, bide eta espaloirik ez zikintzeko. Edukiontziak husteko lanetan bidera erortzen diren hondakinak berehala bilduko ditu biltzeko lantaldeak, biderik egokiena erabiliz, betiere kaleak garbitzeko udal zerbitzuek parte hartu gabe.

Edukiontzia hustu ondoren bere lekuan jarriko da: hondakinak botatzeko ahoa espaloitik eskura geldituko da erabiltzaileentzat, hondakinak botatzeko eroso, erabiltzaileen eta edukiontzia artean oztoporik gabe (hiri altzariak, argiak, paperontziak...) eta ibilgailu batek harrapatzeko, erortzeko edo antzeko arrisku egoeratik salbu.

Nolanahi ere den, lan horien guztien emaitza honakoa izango da: bildu behar diren edukiontziak erabat hutsik geldituko dira, bere lekuan jarrita, estalkia itxita eta mugitzeko arriskurik gabe; edukiontzia eremua hondakinik gabe geldituko da, hondakina edozein dela ere.

Esleipendunak, bestalde, behar diren neurriak hartuko ditu edukiontzi batetik bestera edo papera eta kartoi biltzeko edo sailkatzeko plantara doala paper eta kartoi ez erortzeko. Horretarako papera eta kartoi biltzeko kamioiaren zamarako tolbak panel irristakor bat edo antzeko beste sistema bat izango du, hondakinak erortzea eraginkortasunez ekiditeko.

4.2.- Papera eta kartoi biltzeko edo sailkatzeko planta batera garraiatu

Biltzen den papera eta kartoi Urola Kostako Udal Elkarteak Urteta zabortegean duen baskulan pisatuko da, edo aurrez Udal Elkarteak baimendutako besteren batean (Eusko Jaurlaritzako Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailak emandako ikuskatzeko kontrol metrologikoaren ziurtagiria izan beharko du).

Pisatu ondoren, bildutako papera eta kartoi garraiatuko da papera eta kartoi biltzeko edo sailkatzeko honako instalaziora: Desperdicios de Papel del Norte, S.L., Ibarburu pasealekua 44. zk., 27 poligonoa (Martutene), Donostia.

Urola Kostako Udal Elkarteak kontratua indarrean dagoen epearen barruan esleipendunari exijitu ahal izango dio papera eta kartoi hondakin horiek bildu edo sailkatzeko edozein plantara garraiatzeko, papera eta kartoi berreskuratzeko sektoreko enprekin egin ditzakeen hitzarmenen haritik.

Planta hori Urola Kostako Udal Elkarteak Zarautzen duen egoitza nagusitik (Urdaneta bidea 6) 50 kilometro baino urrunago baldin badago (distantzia hori errepide sari nagusiaren arabera neurtuta), administrazio baldintza zehatzen orrietan kontratua aldatzeari buruz ezarritakoa hartuko da kontuan.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Bildutako materiala hustu behar duten langileek material hori jaso behar duten instalazioetako langileek emandako jarraibideak beteko dituzte uneoro: materiala non hustu, egin behar diren maniobrak, bestelako aginduak eta instalazio horietan arriskuak prebenitzeari buruzko jarraibideak.

Zentro horietan ordutegia edo funtzionamendu arauak aldatzen badira kontratuaren jabeak ez du inolako diru-ordainik jasoko, eta egoera berri horietara egokitu egin beharko du kontratuaren prezioa aldatu gabe.

Materialak garraiatu, pisatu eta helmuga-zentroan husteko lanak egingo dira materialak bildu ondoren. Debehatuta dago bildu eta hustu bitartean biltegitratzea.

4.3. Zerbitzuaren antolamendua

Enpresa lehiatzaileei dagokie sistemarik eraginkorrenak proposatzea, gorago aipatutako zerbitzuak proposatutako bitartekoekin bideratzeko.

Lehiatzaileek xehetasun osoz zehaztuko dute zerbitzuaren antolaketa, bitarteko eta langileen egitasmoa, eta honako alderdiak azalduko dituzte gutxienez:

- a) Bilketako ekipoaren deskribapena: ibilgailua, langileak eta ibilbidea.
 - b) Hondakinak biltzeko ibilbideak, bakoitzean honakoak adieraziz:
 - Ibilbidea
 - Egingo diren kilometroen aurreikuspena
 - Ibilbidean hustuko diren edukiontzien kopurua, edukiontzi motak eta edukiontzi horien kokapean zehatza (udalerrika)
 - Hasierako eta aurreikusitako amaierako ordua
 - Batez beste honako lanotan egingo den denbora: edukiontzia hustu, eremu batetik bestera joan eta papera eta kartoia biltegitratzeko plantan deskargatu
 - Bilduko den hondakin kopuruaren aurreikuspena
 - lanaldi bakoitzean papera eta kartoia biltegitratzeko plantara aurreikusitako joan-etorrien kopurua
 - c) Honako informazioa duten planoak (paperean eta euskarri elektronikoan), eskala egokian: biltzeko ibilbideak eta hustu behar diren edukiontziak.
 - d) Biltzeko egutegia eta ordutegia, honakoak adieraziz:
 - Udalerrri bakoitzaren eta bertako edukiontzi bakoitzaren bilketa egiteko aurreikusitako egunak eta ordutegiak
 - Egutegiko egun bakoitzean zerbitzua jasoko duten udalerrriak eta udalerrri bakoitzean hustuko diren edukiontziak
 - e) Esleipendunaren instalazioetan erabilgarri dauden ordezeko ibilgailuak eta matxura edo aurrez erabakitako etenaren ondorioz ezarriko litzatekeen ekintza-plana, zerbitzua burutzeko ezarritako egutegi eta ordutegiak betetzeko.
 - f) Beste ibilbideekin legokeen koordinazio-maila.
-



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

g) Zerbitzua hobeto deskribatzeko egoki irizitako bestelako datuak.

5. ONTZI ARINAK BILDU ETA GARRAIATZEKO ZERBITZUA

Zerbitzu horretan honakoak sartzen dira:

- a) Urola Kostako Udal Elkartearen lurralde eremuko udalerrietan ontzi arinak gaika biltzea, hondakinak biltzeko eremuetan jarrita dauden kolore horiko edukiontzi monomaterialen bidez.
- b) Ontzi arinak sailkatzeko Legazpiko plantara garraiatzea.

5.1. Ontzi arinak gaika biltzea

5.1.1. Bildu behar diren hondakinak

Edukiontzien bidez ontzi arinak gaika biltzeko zerbitzua honetan datza: batetik, hondakinen sortzaileek bereizi eta kalean horretarako jarritako kolore horiko edukiontzi monomaterialetan utzitako ontzi arinak gaika eta beste hiri hondakinetatik bereiz biltzea, eta, bestetik, hondakin horiek Legazpiko Ontzi Arinak Sailkatzeko Plantara garraiatzea (Legazpi, Gipuzkoa).

Zerbitzua erabil dezakete Udal Elkartearen lurralde eremuan bildukinak eta ontzi arinen hondakinak (plastikozkoak, metalezkoak eta brik konplexuak) sortzen dituzten guztiek, batez ere honakoak biltzeko: etxebizitzan sortutakoak, ikastetxeak, erakundeak eta, oro har, ontzi arinen hondakinak sortzen dituen merkataritza eta zerbitzu sektoreetako edozein jarduera, bere borondatez ontzi arinak berreskuratu eta birziklatzen parte hartu nahi izanez gero.

5.1.2. Uzteko lekua

Bildukinak eta ontzi hondakinak utziko dira borondatez eta ordutegi mugarik gabe, kalean jarritako kolore horiko eta 3 m³-ko edukierako edukiontzi monomaterialetan.

Edukiontziak, ahal dela, **ALBOTIK KARGATZEKOAK** izango dira. Eremu jakin batean horrelako edukiontziak jartzea ezinezkoa baldin bada edo ez bada komeni, kolore horiko edukiontzi normalizatuak erabiliko dira, 1.000 litroko edukiera, estalki laua eta atzetik kargatzen direnak. Hori gertatzen bada, kalean edukiontzi gehiegi jartzea ekiditeko, eremu batean gehienez 1.000 litroko 3 edukiontzi jarriko dira, husteko beharrezko den maiztasunarekin. Era horretako edukiontziek, alde batetik, ixteko sistema izango dute, erabiltzaileek goiko estalkia eskuz irekitzea eraginkortasunez saihesteko, eta, beste alde batetik, hondakinak botatzeko zuloa izango dute (gehienez ere 250 mm-koa).

Lehiatzaileek honako alderdiak zehaztuko dituzte beren proposamenetan: edukiontzirik egokienak (kopuru, edukiera eta fabrikazio-materialak), kokapen zehatza (aurrerago ematen diren jarraibideen argitara).

Edukiontzi horiak beira, paper eta kartoi eta hiri hondakinak nahasian jasotzeko edukiontzien ondoan jarriko dira ahal den guztietan, eta horiek guztiek hondakinak biltzeko eremua osatuko dute. Edukiontzi guztiak eremu berean jartzea ezinezkoa baldin bada, edukiontzi horiak beira eta papera eta kartoa jasotzeko edukiontzien ondoan jarriko dira.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Lehiaketa hau burutzen ari den unean ontzi arinak gaika biltzeko Urola Kostako Udal Elkartearen lurralde eremuan jarritako edukiontziak iglu erakoak dira, oinarria zirkularra dute eta kako bikoitzeko garabiarekin husten dira. Esleipendunak edukiontzi horiek ordezkatzeko ditu albotik kargatzen diren edukiontzi berriekin, edukiontzia jartzeko leku edo eremuak ezinezko egiten ez duenean edo komeni ez denean izan ezik. I. ERANSKINEAN eta III. ERANSKINEAN zehaztuta dator Urola Kostako Udal Elkartea osatzen duten udalerrri bakoitzean edukiontziak non jarrita dauden eta orain arte gutxienez zein maiztasunekin hustu diren.

Zerbitzua eraginkortasunez eskaintzeko behar diren giza baliabide nahiz bitartekoak ebaluatzeko, lehiatzaileek beren eskaintzetan aurreikusi behar dituzte lehiaketa egiteko unean jarrita dauden ontzi arinen edukiontziak, edukiontzien banaketaren azterketaren ondorioz jarri bide direnak eta kontratua indarrean dagoela beste eremu batzuetan jar litezkeenak.

5.1.3. Biltzeko modalitatea

Ontzi arinen hondakinak bildu eta garraiatuko dira zapaltzeko sistema eta edukiontziak albotik kargatzeko sistemak dituzten ibilgailuen bidez. Osagarri gisa kargatzeko beste sistema batzuk dituzten ibilgailuak erabiliko dira, eta, beharrezkoa baldin bada, lan horiek errazteko ibilgailu arinak.

Hasieran eremu jakin batzuetan albotik kargatzeko edukiontziak jarri ez (bestelako eragozpenengatik edo komeni ez zelako), eta, kontratua indarrean dagoen epearen barruan, egoera aldatzearen ondorioz Urola Kostako Udal Elkarteak albotik kargatzeko edukiontziak jartzeko eskatzen badu, esleipendunak jarrita dauden edukiontzien ordezkari albotik kargatzeko edukiontziak jarriko ditu. Halaber, zerbitzuak beste behar batzuk baldin baditu, esleipendunak albotik kargatzen diren edukiontzien kopurua handitu beharko du.

Hori gertatzen bada, esleipendunak diru-ordaina jasotzeko eskubidea izango du. Ordain hori kalkulatu da proposamenean edukiontziak eskuratzeko eskainitako unitate prezioen arabera, metatutako KPIarekin. Urola Kostako Udal Elkarteak, komenigarri iritziz gero, edukiontziak zuzenean erosi eta esleipendunaren eskura jarriko ditu.

5.1.4. Biltzeko ordutegia

Nolanahi ere den, lehiatzaileek beren eskaintzetan Udal Elkartea osatzen duten udalerrietara eta proposatutako bilketa sistemetara ondoen egokitzen diren ordutegiak proposatu ahal izango dituzte. Hala ere, Urola Kostako Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoek eskumena izango dute proposamena aldatzeko eta esleipendunak aldaketa horiek onartu egin beharko ditu. Horretarako, kontuan hartu beharko dira udalerrien eta udalerria osatzen duten auzo eta guneen neurria, sortzen duten hondakinen kopurua eta zerbitzuak eragotz ditzakeen eta, bidenabar, zerbitzua burutzea galaraz dezaketen gertakariak (asteko azokak, ibilgailuen trafiko handia, herritarren jarduerak, ibilgailu eta oinezkoen mugimendua ikastetxe, enpresa eta antzekoen sarrera eta irteeratan).

5.1.5. Biltzeko maiztasuna

Ontzi arinen edukiontziak husteko maiztasunak bermatu behar du uneoro edukiontzi batean dagoen hondakinak edukiontzia edukieraren %75 ez gainditzea. Beraz, edukiontzi bakoitzak husteko maiztasun jakin bat izango du.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Esleipendunak egokitu egin behar du jarrita dauden nahiz kontratuak irauten duen epearen barruan jar litezkeen edukiontziak husteko hasieran ezarritako maiztasuna edukiontziak betetzeko erritmoa kontuan hartuta, eta maiztasuna areagotu egingo du beharrezkoa baldin bada, ontzi arinak uzteko edukiontziaren beti lekua egon dadin. Horrek ez du esleitzeko prezioa inola ere areagotuko.

Esleipendunak zerbitzua indartzeko behar diren neurriak aurreikusi behar ditu ontzi arinen hondakin gehien sortzen den uneetarako, une horietan ontzi arinak biltzeko bitarteko arruntak ez baitira aski izango.

Argibide gisa, baldintzen orri hauen **III. ERANSKINEAN** dator une honetan jarrita dauden ontzi arinen edukiontziak husteko gutxieneko maiztasuna.

5.1.6. Biltzeko egutegia

Lehiatzaileek beren eskaintzan edukiontziak husteko gutxieneko maiztasunari, Udal Elkartea osatzen duten udalerrien ezaugarri eta proposatutako gaika biltzeko sistemei ondoen egokitzen zaien bilketa egutegia proposatu behar dute.

Asteburuetan azkarren betetzen diren eta aurrez ezarritako betetzeko muga maiz gainditzen duten edukiontzien lehentasuna izango dute biltzeko egutegian. Edukiontzi horientzat egunak gordeko dira egutegian, betetzea ekiditeko, eta egutegia horretarako beharrezkoa den eran antolatuko da.

Lehiatzaileek ontzi arinak biltzeko egutegia eta ordutegia beste bilketa zerbitzuen egutegi eta ordutegiarekin koordinatuko dute, zerbitzua eraginkorragoa izateko.

Ontzi arinak biltzeko esleipendunak proposatu eta Udal Elkarteak onartzen duen egutegia zehatz-mehatz bete behar da. Esleipendunaren betebeharra da egutegi horretan zehaztutako egunetan, astelehenetik igandera, hondakinak biltzea, aste barruko jaiegunak barne. Eguberri eguna (abenduak 25) eta urte berri eguna (urtarrilak 1) salbuespen izango dira. Bi egun horiei dagozkien bilketa zerbitzuak aurreko egunean edo hurrengo egunean egingo dira, horri buruz Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoek ematen dituzten jarraibideen arabera.

5.1.7. Lurpeko edukiontziak biltzea

Esleipendunaren betebeharra da ontzi arinak jasotzeko jarrita dauden (**II. ERANSKINEAN** adierazita) eta etorkizunean Udal Elkartearen lurralde eremuan jar litezkeen lurpeko edukiontziak biltzea, esleitzeko prezioa aldatu gabe.

5.1.8. Biltzeko lanak nola egin

Biltzeko lantaldeak ontzi arinen edukiontziak hustuko ditu horretarako ezarritako egutegiaren arabera, edukiontzien eremura joandakoan edukiontziak duen betetze-maila edozein izanik ere.

Esleipendunaren betebeharra da edukiontzien alboan, lurrean, nahiz gainean dagoen ontzi arinen hondakin oro biltzea, hor egotearen arrazoia edozein dela ere.

Esleipendunak arretaz egingo ditu zerbitzuari dagozkion lanak, bide eta espaloirik ez zikintzeko. Edukiontziak husteko lanetan bidera erortzen diren hondakinak berehala bilduko ditu biltzeko lantaldeak, biderik egokiena erabiliz, betiere kaleak garbitzeko udal zerbitzuek parte hartu gabe.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Edukiontzia hustu ondoren bere lekuan jarriko da: hondakinak botatzeko ahoa espaloitik eskura geldituko da erabiltzaileentzat, hondakinak botatzeko eroso, erabiltzaileen eta edukiontzia-aren artean oztoporik gabe (hiri altzariak, argiak, paperontziak...) eta ibilgailu batek harrapatzeko, erortzeko edo antzeko arrisku egoeretatik salbu.

Nolanahi ere den, lan horien guztien emaitza honakoa izango da: bildu behar diren ontzi arinen edukiontzia erabat hutsik geldituko dira, bere lekuan jarrita, estalkia itxita eta mugitzeko arriskurik gabe; edukiontzia-aren eremua hondakinik gabe geldituko da, hondakina edozein dela ere.

Esleipendunak, bestalde, behar diren neurriak hartuko ditu edukiontzia batetik bestera edo ontziak sailkatzeko Legazpiko plantara doala ontzi arinik ez erortzeko. Horretarako ontzi arinen hondakinak biltzeko kamioiaren zamarako tolbak panel irristakor bat edo antzeko beste sistema bat izango du, hondakinak erortzea eraginkortasunez ekiditeko.

Horrez gain, kamioiak sistemaren bat izango du edukiontzia batetik bestera edo ontziak sailkatzeko Legazpiko plantara doala kaxa zapaltzailera euri urik ez sartzeko; halaber, istripuz nahiz edukiontzia-ak husten ari dela kaxa zapaltzailera sar litekeen ura kanporatzeko sistema bat izango du.

5.2.- Ontzi arinak sailkatzeko Legazpiko plantara garraiatu

Biltzen diren ontzi arin guztiak Urola Kostako Udal Elkarteak Urteta zaborte-egian duen baskulan pisatuko dira, edo aurrez Udal Elkarteak baimendutako besteren batean (Eusko Jaurlaritzako Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailak emandako ikuskatzeko kontrol metrologikoaren ziurtagiria izan beharko du).

Pisatu ondoren, ontzi arinen hondakinak Legazpiko ontzi arinak sailkatzeko plantara garraiatuko dira.

Bildutako materiala hustu behar duten langileek planta horretako langileek emandako jarraibideak beteko dituzte uneoro: materiala non hustu, egin behar diren maniobrak, bestelako aginduak eta instalazio horietan arriskuak prebenitzeari buruzko jarraibideak.

Zentro horietan ordutegia edo funtzionamendu arauak aldatzen badira kontratuaren jabeak ez du inolako diru-ordainik jasoko, eta egoera berri horietara egokitu egin beharko du kontratuaren prezioa aldatu gabe.

Materialak garraiatu, pisatu eta helmuga-zentroan husteko lanak egingo dira materialak bildu ondoren. Debe-ekatuta dago bildu eta hustu bitartean biltegitratzea.

5.3. Zerbitzuaren antolamendua

Enpresa lehiatzaileei dagokie sistemarik eraginkorrenak proposatzea, gorago aipatutako zerbitzuak proposatutako bitartekoekin bideratzeko.

Lehiatzaileek xehetasun osoz zehaztuko dute zerbitzuaren antolaketa, bitarteko eta langileen egitasmoa, eta honako alderdiak azalduko dituzte gutxienez:

a) Bilketako ekipoaren deskribapena: ibilgailua, langileak eta ibilbidea.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

- b) Hondakinak biltzeko ibilbideak, bakoitzean honakoak adieraziz:
- Ibilbidea
 - Egingo diren kilometroen aurreikuspena
 - Ibilbidean hustuko diren edukiontzien kopurua, edukiontzi motak eta edukiontzi horien kokapean zehatza (udalerrira)
 - Hasierako eta aurreikusitako amaierako ordua
 - Batez beste honako lanotan egingo den denbora: edukiontziak hustu, batetik besterako denbora eta sailkatzeko plantan deskargatzea
 - Bilduko den hondakin kopuruaren aurreikuspena
 - Lanaldi bakoitzean ontzi arinak sailkatzeko plantara aurreikusten diren joan-etorrien kopurua
- c) Honako informazioa duten planoak (paperean eta euskarri elektronikoan), eskala egokian: biltzeko ibilbideak eta hustu behar diren edukiontziak.
- d) Biltzeko egutegia eta ordutegia, honakoak adieraziz:
- Udalerrri bakoitzaren eta bertako edukiontzi bakoitzaren bilketa egiteko aurreikusitako egunak eta ordutegiak
 - Egutegiko egun bakoitzean zerbitzua jasoko duten udalerrriak eta udalerrri bakoitzean hustuko diren edukiontziak
- e) Esleipendunaren instalazioetan erabilgarri dauden ordezeko ibilgailuak eta matxura edo aurrez erabakitako etenaren ondorioz ezarriko litzatekeen ekintza-plana, zerbitzua burutzeko ezarritako egutegi eta ordutegiak betetzeko.
- f) Beste ibilbideekin legokeen koordinazio-maila
- g) Zerbitzua hobeto deskribatzeko egoki irizitako bestelako datuak

6. PILAK BILDU ETA GARRAIATZEKO ZERBITZUA

Zerbitzu horren bidez etxebizitzetan, merkataritzan, erakundeetan, bulegoetan, zerbitzuetan eta bestelako edozein jardueratan sortutako pila hondakinak bilduko dira, salbuespenik gabe.

Pilak biltzeko zerbitzua honetan datza: batetik, hondakinen sortzaileek bereizi eta kalean horretarako jarritako 20 litroko edukiontzietan utzitako ontzi pilak gaika eta beste hiri hondakinetatik bereiz biltzea, eta, bestetik, hondakin horiek Urteta zabortegira garraiatu eta horretarako jarrita dagoen edukiontzira hustea.

Zerbitzuaren osagarri gisa, borondatez pilen aurre bilketa egiten duten establezimenduei arreta eskaini eta erabilitako pila horiek bildu behar ditu esleipendunak. Establezimendu laguntzaileak pilak saltzen dituzten dendak izan ohi dira (erloju-dendak, bitxi-dendak, optika-dendak, argazki-dendak, etxeko tresna elektrikoaren dendak, supermerkatuak...).

I. ERANSKINEAN dago adierazita udalerrri bakoitzeko edukiontzien kokapena. Nolanahi ere den, kopuru hori handitu egin ahal izango da, zerbitzua egokitu eta hobetzeko edo Udal Elkartearen udalerrietan etxebizitza-multzo berriak eraikitzen direlako. Zerbitzua eraginkortasunez eskaintzeko behar diren giza baliabide nahiz bitartekoak ebaluatzeko, lehiatzaileek beren eskaintzetan aurreikusi



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

behar dituzte lehiaketa egiteko unean jarrita dauden pilak biltzeko edukiontziak eta kontratua indarrean dagoela zerbitzuaren beharrak direla eta beste eremu batzuetan jar litezkeenak.

Edukiontziak hilean behin hustuko dira, urteko edozein egunetan, igande eta jaiegunetan izan ezik; egun horiei dagozkien bilketa zerbitzuak aurreko egunean edo hurrengo egunean egingo dira, horri buruz Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoek ematen dituzten jarraibideen arabera.

Pilen edukiontziak biltzeko zerbitzuaren ordutegia egunekoa izango da. Establezimendu laguntzaileetako pilak biltzeko ordutegia egokituko zaio establezimenduko ordutegiari. Aparteko gertakariak edo arrazoi bereziak direla eta, Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoek bilketa egiteko ordutegia eta maiztasuna finkatu ahal izango dituzte.

Esleipendunak, sei hilean behin, aldi batez Urteta zabortegean pilatutako pilak garraiatuko ditu pilak berreskuratu edo eta birziklatzeko planta batera. Udal Elkarteak zehaztuko du zein plantara. Une honetan pilak Erandion (Bizkaia) dagoen Recypilas, S.A. berreskuratzeko plantara garraiatzen dira.

Urola Kostako Udal Elkarteak, kontratua indarrean dagoen epearen barruan, esleipendunari exijitu ahal izango dio material hori berreskuratzeko eta birziklatzeko beste planta batera garraiatzeko.

Bildutako materiala hustu behar duten langileek material hori jaso behar duten instalazioetako langileek emandako jarraibideak beteko dituzte uneoro: materiala non hustu, egin behar diren maniobrak eta bestelako aginduak.

Enpresa lehiatzaileei dagokie sistematik eraginkorrenak proposatzea, gorago aipatutako zerbitzuak proposatutako bitartekoekin bideratzeko.

Lehiatzaileek xehetasun osoz zehaztuko dute zerbitzuaren antolaketa, bitarteko eta langileen egitasmoa, eta honako alderdiak azalduko dituzte gutxienez:

h) Bilketako ekipoaren deskribapena: ibilgailua, langileak eta ibilbidea.

i) Hondakinak biltzeko ibilbideak, bakoitzean honakoak adieraziz:

- Ibilbidea
- Egingo diren kilometroen aurreikuspena
- Ibilbidean hustuko diren edukiontzien kopurua, edukiontzi motak eta edukiontzi horien kokapean zehatza (udalerrika)
- Hasierako eta aurreikusitako amaierako ordua
- Batez beste honako lanotan egingo den denbora: edukiontziak hustu, batetik besterako denbora eta Urteta zabortegean deskargatzea
- Bilduko den hondakin kopuruaren aurreikuspena
- Lanaldi bakoitzean garbigunera aurreikusitako joan-etorrien kopurua

j) Honako informazioa duten planoak (paperean eta euskarri elektronikoan), eskala egokian: biltzeko ibilbideak eta hustu behar diren edukiontziak.

k) Biltzeko egutegia eta ordutegia, honakoak adieraziz:

- Udalerrri bakoitzaren eta bertako edukiontzi bakoitzaren bilketa egiteko aurreikusitako egunak eta ordutegiak



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

- Egutegiko egun bakoitzean zerbitzua jasoko duten udalerriak eta udalerrri bakoitzean hustuko diren edukiontziak
- l) Esleipendunaren instalazioetan erabilgarri dauden ordezeko ibilgailuak eta matxura edo aurrez erabakitako etenaren ondorioz ezarriko litzatekeen ekintza-plana, zerbitzua burutzeko ezarritako egutegi eta ordutegiak betetzeko.
- m) Beste ibilbideekin legokeen koordinazio-maila
- n) Zerbitzua hobeto deskribatzeko egoki iritzitako bestelako datuak

7. EDUKIONTZIAK JARRI, GARBITU, MANTENTZE-LANAK EGIN ETA ORDEZKATZEKO ZERBITZUA.

Zerbitzu horretan honakoak sartzen dira:

1. Edukiontziak jarri
2. Edukiontziak garbitu
3. Edukiontzien mantentze-lanak egin
4. Edukiontziak ordezkatu
5. Edukiontziak jarri, lekuz aldatu eta antzeko lanak egin

7.1. EDUKIONTZIAK JARRI

7.1.1. Edukiontzien kokapen azterketa

Lehiatzaileek beren eskaintzan edukiontzien kokapenari buruzko azterketa bat aurkeztuko dute. Azterketa horrek honako alderdiak hartuko ditu kontuan:

1.- Baldintzen orriotan ezarritakoaren arabera bilduko diren hiri hondakinak eta asimilagarriak sor ditzaketen etxebizitza, merkataritza-establezimendu, zerbitzu, erakunde eta industria jarduerak, Urola Kostako Udal Elkarteak osatzen duten udalerrien lurralde eremuan kokatuta daudenak.

1.1.- Udal Elkarteko udalerrri bakoitzaren biztanleria (kopurua eta sakabanatze maila), berariaz honakoak kontuan hartuz:

- Hirigune nagusia
- Urrun dauden auzoak edo periferia
- Landa eremuetako biztanleria sakabanatuek eratzen dituzten gunek (etxe, baserri, etxe-multzo eta antzekoak).

1.2.- Hiri barruko merkataritza establezimenduak eta zerbitzuak, eta azalera handiko merkataritza gunek.

1.3.- Aisialdiko gunek, parkeak eta atseden lekuak.

1.4.- Barreiatutako ostalaritza establezimenduak (jatetxeak, sagardotegiak, erretegiak...), gasolina zerbitzuguneak eta antzekoak.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

1.5.- Industria poligono eta industrialdeetan dauden industria eta zerbitzu jarduerak.

2.- Hondakinak sortzeko adierazleak eta bildu behar diren hondakinentzat ezarritako maiztasun eta egutegiak.

3.- Bildu behar diren hondakinen dentsitatea.

4.- Edukiontzia-aren edukiera aprobetxatzeko adierazlea eta edukiontzia-aren betetze-mailaren %25eko bolumena erabilgarri egotea bermatzeko betebeharra.

5.- Urte sasoiaren arabera gorabeherak, sortutako hondakinen kopuruetan; jaiegunen eragina pilatutako hondakinen kopuruetan.

6.- Edukiontzia-ak erabiltzaileengandik eskura eta hurbil egotea. Landa inguruan sakabanatutako biztanle multzoen kasuan, beharrezkoa izango da joan-etorriengatik, udalerriko hirigunerako desplazamenduengatik edo biztanleen ohiturengatik erabiltzaile gehien dituzten gunek kontuan hartzea.

7.- Edukiontzia-ak eskura egotea edukiontzia-ak hustu edo garbitu behar dituzten lantaldeentzat.

8.- Edukiontzia- inguruan txertatzea, eta ahal dela:

- Oinezkoen biderik ez oztopatzea
- Oinezko eta ibilgailuei ikuspina ez oztopatzea
- Ibilgailuak aparkatzeko ahalik eta leku gutxien okupatzea
- Edukiontzia-ak merkataritza establezimenduen aurrean jartzea saihestea
- Edukiontzia-ak monumentu edo kultur interes bereziko lekuetan jartzea saihestea
- Edukiontzia- mota egokia aukeratzea, diseinuari eta estetikari dagokionez

9.- Edukiontzia-aren arreta eremuaren ezaugarri bereziak, hala nola:

- Biztanleriaren dentsitatea
- Eraikin motak (dentsitate altu, ertain edo baxua)
- Bideen ezaugarriak
- Trafikoaren intentsitatea
- Eremu horretako jarduerak
- Eraikin bereziak: ikastetxeak, kiroldegiak, tren geltokiak, autobus geltokiak, zaharren egoitzak...

10.- Edukiontzia-ak erabiltzaile nahiz bilketako lantaldearentzat arriskutsuak izan daitezkeen lekuetan jartzea saihestea, ibilgailuek erabiltzaile edo lantaldeko pertsonak harrapatzeko arriskuagatik edo istripuz edo nahita edukiontzia- mugitzeak (adibidez, haizeagatik) beste batzuei kalteak eragin diezazkiekeelako. Saihestu edukiontzia-ak jartzea:

- Aldapa handietan
- Ikuspen gutxiko lekuetan
- Aldapa-gainaldeetan
- Kurba itxietan
- Zirkulazio bideetan

7.1.2. Jarri behar diren edukiontzia-ak



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Esleipendunaren betebeharra da jarraian adierazten diren edukiontziak jartzea:

Papera eta kartoia bildu eta garraiatzeko zerbitzua:

- Papera eta kartoia biltzeko edukiontzi monomaterialak, albotik kargatzen direnak, 3.200 litroko edukierakoak
- Papera biltzeko edukiontzi monomaterialak, atzetik kargatzen direnak, 1.000 litroko edukierakoak, albotik kargatzen diren edukiontziak jarri ezin diren edo jartzea komeni ez den lekuetan.

Ontzi arinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua:

- Ontzi arinak biltzeko edukiontzi monomaterialak, albotik kargatzen direnak, 3.200 litroko edukierakoak
- Ontzi arinak biltzeko edukiontzi monomaterialak, atzetik kargatzen direnak, 1.000 litroko edukierakoak, albotik kargatzen diren edukiontziak jarri ezin diren edo jartzea komeni ez den lekuetan.

Pilak bildu eta garraiatzeko zerbitzua:

- Pilak biltzeko edukiontzi monomaterialak, 12 eta 20 litro arteko edukierakoak

7.1.3. Edukiontzien banaketaren maila

Edukiontzien banaketak Udal Elkartearen lurralde eremu osoa hartuko du, eta, beraz, bilketa mekanizatu osoa.

7.1.4. Jarri behar diren edukiontzien kopurua eta ezaugarriak

Edukiontzien kopuruak bermatuko du edukiontziak ezarritako husteko maiztasunarekin ez dela inoiz gaindituko edukiontzi guztien betetze mailaren %75.

Lehiatzaileek edukiontzien kokapenaren azterketan aurreikusitako beharrak betetzeko adina edukiontzi hornitzeko proposamen teknikoa eta ekonomikoa aurkeztu behar dute derrigorrez, eta horren %10, ordezeko gisa.

a) Papera eta kartoia gaika bildu eta garraiatzeko zerbitzua:

Esleipendunaren betebeharra da papera eta kartoia biltzeko albotik kargatzen diren edukiontzi monomaterial normalizatuak kalean jartzea. Bi eratako edukiontziak izango dira:

a.1.) Une honetan jarrita dauden 3m³-ko iglu erako edukiontzi monomaterialak ordezkaturiko dituzten edukiontziak:

- Edukiontzien 3.200 litroko edukiera izango dute.
 - Edukiontzien EZ dute izango ez eskuz ireki ahal izateko heldulekurik, ez estalkia irekitzeko pedalik.
 - Erabiltzaileak papera edukiontzira sartzeko aldean, estalkiak papera botatzeko aho bat edo bi izango ditu, era horretako hondakinak botatzeko prestatuak. Zuloak sistema egoki bat izango du edukiontzira ura sartzeko galarazteko.
 - Edukiontziak estalkiak blokeatzeko sistema bat izango du, edukiontzia kalean jarrita dagoela erabiltzaileak ireki ez dezan. Edukiontzia kamioira husteko unean edo garbitzeko unean sistema hori era automatikoan askatu eta estalkiak erabat irekiko dira.
-



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

- Bestalde, eusteko sistemak edukiontzia-aren eta lurzorua-aren behar besteko marruskadura bermatuko du, lekuz mugitzea saihesteko.
- Edukiontzia egiteko materialak bermatu behar du denboran irautea, erresistentzia, zarata maila baxua sortzea eta erraz garbitzea eta mantentze-lanetarako erraza izatea zikinkeria, kolpe, pintada, grafiti, erreketeta eta antzekoen aurrean.
- Edukiontzia-aren goiko ertza gomazko uztai batekin babestuta egongo da. Uztaia edukiontzia-ri errematxatuta egongo da.
- Edukiontzia-ak honako informazio errotuluak izango ditu: segurtasuneko banda islatzaileak lau ertzetan, aparkatzea debekatzeko errotulua edukiontzia-ak bideari begira duen aldean eta Udal Elkartearen logotipoa eta edukiontzia- utzi behar den hondakin-motari buruzko informazioa (Udal Elkarteak zehazten duenaren arabera) erabiltzaileak edukiontzia erabiliko duen aldean.
- Edukiontzia-ak kolore urdina izango du, betiere Udal Elkarte-ko Zerbitzu Teknikoek zehaztutakoa eta edukiontzia-aren egileak aukeran jartzen dituenen artekoa.
- Edukiontzia- guztiek zenbaki korrelatibo bat izango dute identifikatzeko. Zenbaki hori grabatuta, inprimatuta edo serigrafiatuta egongo da, ez erortzeko edo ezabatze-ko eran, Urola Kostako Udal Elkarte-ko Zerbitzu Teknikoek emandako jarraibideen arabera.

a.2.) Une honetan bilketa albotik kargatuta egiten den lekuetan jarriko diren edukiontzia-ak:

- Edukiontzia-ek 3.200 litroko edukiera izango dute.
- Edukiontzia-ek eskuz ireki ahal izateko heldulekua eta estalkia irekitzeko pedala izango dituzte.
- Bestalde, eusteko sistemak edukiontzia-aren eta lurzorua-aren behar besteko marruskadura bermatuko du, lekuz mugitzea saihesteko.
- Edukiontzia egiteko materialak bermatu behar du denboran irautea, erresistentzia, zarata maila baxua sortzea eta erraz garbitzea eta mantentze-lanetarako erraza izatea zikinkeria, kolpe, pintada, grafiti, erreketeta eta antzekoen aurrean.
- Edukiontzia-aren goiko ertza gomazko uztai batekin babestuta egongo da. Uztaia edukiontzia-ri errematxatuta egongo da.
- Edukiontzia-ak honako informazio errotuluak izango ditu: segurtasuneko banda islatzaileak lau ertzetan, aparkatzea debekatzeko errotulua edukiontzia-ak bideari begira duen aldean eta Udal Elkartearen logotipoa eta edukiontzia- utzi behar den hondakin-motari buruzko informazioa (Udal Elkarteak zehazten duenaren arabera) erabiltzaileak edukiontzia erabiliko duen aldean.
- Edukiontzia-ak kolore urdina izango du, betiere Udal Elkarte-ko Zerbitzu Teknikoek zehaztutakoa eta edukiontzia-aren egileak aukeran jartzen dituenen artekoa.
- Edukiontzia- guztiek zenbaki korrelatibo bat izango dute identifikatzeko. Zenbaki hori grabatuta, inprimatuta edo serigrafiatuta egongo da, ez erortzeko edo ezabatze-ko eran, Urola Kostako Udal Elkarte-ko Zerbitzu Teknikoek emandako jarraibideen arabera.

Leku jakin batean gisa horretako edukiontzia-ak jartzea ezinezkoa baldin bada edo komeni ez bada, ezaugarri hauek dituzten edukiontzia-ak jarriko dira: atzetik kargatzeko edukiontzia normalizatuak, 1.000 litroko edukierakoak, kolore urdinekoak eta tapa laua dutenak, etxe-ko hondakinak jasotzeko erabiltzen diren antzekoak. Edukiontzia horiek ez dute estalkia irekitzeko pedalik izango.

b) Ontzi arinak gaika bildu eta garraiatzeko zerbitzua:

Esleipendunaren betebeharra da ontzi arinak biltzeko albotik kargatzen diren edukiontzia monomaterial normalizatuak kalean jartzea. Edukiontzia horiek honako ezaugarriak izango dituzte:

- Edukiontzia-ek 3.200 litroko edukiera izango dute.
 - Edukiontzia-ek EZ dute izango ez eskuz ireki ahal izateko heldulekurik, ez estalkia irekitzeko pedalik.
-



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

- Erabiltzaileak ontzi arinak edukiontzira sartzeko aldean, estalkiak ontziak botatzeko bi aho izango ditu, era horretako hondakinak botatzeko prestatuak. Hondakinak botatzeko ahoak zirkularrak izango dira, 250 mm-ko diametroa izango dute eta ura sartzeari galarazteko sistema bat izango dute.
- Edukiontzia estalkiak blokeatzeko sistema bat izango du, edukiontzia kalean jarrita dagoela erabiltzaileak ireki ez dezan. Edukiontzia kamioira husteko unean edo garbitzeko unean sistema hori era automatikoa askatu eta estalkiak erabat irekiko dira.
- Bestalde, eusteko sistemak edukiontzia eta lurzorua behar besteko marruskadura bermatuko du, lekuz mugitzea saihesteko.
- Edukiontzia egiteko materialak bermatu behar du denboran irautea, erresistentzia, zarata maila baxua sortzea eta erraz garbitzea eta mantentze-lanetarako erraza izatea zikinkeria, kolpe, pintada, grafiti, erreketak eta antzekoen aurrean.
- Edukiontzia goiko ertza gomazko uztai batekin babestuta egongo da. Uztai edukiontzia errematxatuta egongo da.
- Edukiontzia honako informazio errotuluak izango ditu: segurtasuneko banda islatzaileak lau ertzetan, aparkatzea debekatzeko errotulua edukiontzia bideari begira duen aldean eta Udal Elkartearen logotipoa eta edukiontzia utzi behar den hondakin-motari buruzko informazioa (Udal Elkarteak zehazten duenaren arabera) erabiltzaileak edukiontzia erabiliko duen aldean.
- Edukiontzia kolore horia izango du, betiere Udal Elkartearen Zerbitzu Teknikoek zehaztutakoa eta edukiontzia egileak aukeran jartzen dituen artekoa.
- Edukiontzia guztiek zenbaki korrelatibo bat izango dute identifikatzeko. Zenbaki hori grabatuta, inprimatuta edo serigrafiatuta egongo da, ez erortzeko edo ezabatuzko eran, Urola Kostako Udal Elkartearen Zerbitzu Teknikoek emandako jarraibideen arabera.

Leku jakin batean gisa horretako edukiontzia jartzea ezinezkoa baldin bada edo komeni ez bada, ezaugarri hauek dituzten edukiontzia jarriko dira: atzetik kargatzeko edukiontzia normalizatuak, 1.000 litroko edukierakoak, kolore horioak eta tapa laua dutenak, etxe hondakinak jasotzeko erabiltzen diren antzekoak. Era horretako edukiontzien, alde batetik, ixteko sistema izango dute, erabiltzaileek goiko estalkia eskuz irekitzea eraginkortasunez saihesteko, eta, beste alde batetik, hondakinak botatzeko bi zulo izango dituzte (gehienez ere 250 mm-koak).

c) Pilak gaika bildu eta garraiatzeko zerbitzua:

Esleipendunaren betebeharra da pilak biltzeko kolore horio 20 litro inguruko edukierako edukiontzia normalizatuak kalean jartzea.

Zerbitzua eskaintzen hasteko unean jarrita dauden edukiontzia erabili egingo dira.

Halaber, esleipendunaren betebeharra da mahai gaineko 12 litroko edukiontzia monomaterialak hornitu eta jartzea merkataritza-establezimendu, bulego eta antzekoetan, aurrez Udal Elkartearen Zerbitzu Teknikoari eskaria egin badiete.

Leku berrietan jartzeko altak Udal Elkarteak bideratu eta kudeatuko ditu eta esleipendunari jakinaraziko dizkio ahalik eta lasterren, bilketa zerbitzuan sar ditzan. Edukiontzia hornitzea Udal Elkarteak hartuko du bere gain.

Esleipendunak kontratua indarrean dagoen epearen barruan goian deskribatutako edukiontzia jarriko ditu, behar adina, uneoro sortzen diren hondakinak behar bezala bildu eta bilketa zerbitzua eraginkortasunez burutzea bermatzeko.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Horretarako, esleipendunak jarrita dauden edukiontzi mota ezberdinen stock bat izango du derrigorrez, jarrita dauden edukiontzien kopurua berehala handitzea bermatu ahal izateko.

Lehiatzaileek aurreikusi egin behar dute emakida indarrean dagoen epearen barruan sortzen den hondakin kopuruak gora egitea, edo zerbitzuak beste eremu batzuetara zabaltzea (auzo, industria-eremu, merkataritza-eremu, zerbitzu-eremu berriak). Esleipena egin ondoren, esleipendunak ez du eskubiderik izango hori dela eta kalte-ordaina jasotzeko.

7.1.5. Dauden edukiontzien aprobeixamendua

Amaitu berri diren kontratuei atxikitako edukiontzi guztiak edukiontzi berriei ordezkatu behar dira, lehiatzaileek aurkezten duten edukiontziak banatzeko azterketaren arabera. Kasu hauetan jarraitu ahal izango da erabiltzen, aurrez berrikusi eta egokituta:

- Une honetan kartoia biltzeko zerbitzuan erabiltzen diren albotik kargatzeko 3.200 litroko eta 1.100 litroko edukiontzi urdinak
- Atzetik kargatzen diren edukiontzi normalizatu urdinak, 240 eta 1.000 litro artekoak, betiere erabiltzeko egoeran baldin badaude. Edukiontzi horiek erabiltzen dituzte kartoi hondakin txikiak sortzen dituzten ekoizleek, ikastetxeek eta administrazio erakundeek.
- Pilak gaika biltzeko edukiontziak, betiere erabiltzeko egoeran baldin badaude.

7.1.6. Erabiltzen ez diren edukiontziak kendu eta eskuratzea

Amaitu berri diren kontratuei atxikita erabili diren eta aurrerantzean erabiliko ez diren edukiontziak (ordezkoak barne), esleipendun berriak erretiratu eta horien kargu egingo da.

Erabiliko ez diren eta erretiratzen diren edukiontzi guztiak (paper eta kartoi, ontzi arin eta abar) bere jabetzako bilakatuko dira.

Erretiratutako paper eta kartoi eta ontzi arinen edukiontziei dagokienez, lehiatzaileek beren proposamenetan **DIRU-ESKAINZA** bat egingo dute Urola Kostako Udal Elkartearen alde, edukiontzi horiek eskuratzeko, honako prezioan: **100 euro(€/edukiontzi unitatea)**, BEZa kanpo dela.

7.1.7. Edukiontzien banaketa

Esleipendunari dagokio edukiontziak muntatzea, kalean jartzea eta erabiliko ez diren edukiontziak erretiratzea.

Edukiontzi berriak urratsez urrats banatu eta jarriko dira, hondakinak biltzeko ibilbideen arabera, herritarrei ahalik eta oztopo gutxien sortuz.

Halaber, esleipendunari dagokio gorago aipatutako edukiontziak hornitu eta entregatzea.

7.1.8. Gertakari bereziak

Esleipendunak kontuan hartu behar ditu gertakari edo gorabehera bereziak edo, oro har, ohi baino hondakin gehiago biltzea ekar dezaketen egunak, hala nola:



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

- Musika kontzertuak,
- Udal Elkarteak osatzen duten udalerrietako (nahiz horietako auzoetako) zaindariaren jaiak,
- Inauteriak,
- Erromeriak,
- Euskararen aldeko festa ekitaldiak: Kilometroak, Korrika...,
- Jubilatuen bazkariak,
- Politika kontzentrazioak,
- Kirol ekitaldiak,
- Kultur ekitaldiak,
- Eta abar.

Esleipendunak zerbitzua indartzeko behar diren edukiontziak jarri eta zerbitzu bereziak eskaintzeko betebeharra du, kasu bakoitzean aurreikusten diren garbiketa zerbitzuekin koordinatuta.

Horretarako, esleipendunak eskura izan behar du beti ordezeko edukiontzien behar adinako stock bat, une jakin batean zerbitzua indartzeko izan litekeen premiari berehala erantzuteko, edukiontziak jartzeko eskariei eta edukiontziak ordezkatzeko beharrei erantzuteko izan behar dituen ordezeko edukiontziei kalterik egin gabe. Edukiontzi horiek beti garbi eta zerbitzua eskaintzen jartzeko prest egongo dira.

Hondakin gehiago sortzea ekarri duen gertakari edo eguna amaitu eta lehengora itzuli ondoren, esleipendunak jarritako edukiontziak erretiratu, garbitu eta biltegiratu egingo ditu.

7.1.9. Urte sasoiaren arabeko gorabeherak

Hondakinen ekoizpenean urte sasoiaren arabeko gorabeherak dituzten guneeetan (aisialdi gunek, ostalaritzako establezimenduak, ikastetxeak, gunek turistikoak eta abar), esleipendunak edukiontzien kopurua eta horiek husteko maiztasuna egokitu egingo ditu, zerbitzuaren beharren arabera, betiere Udal Elkarteak Zerbitzu Teknikoek baimena aldeztuz emanda.

7.1.10. Edukiontziak biltegiratzeko eremua

Lehiatzaileak Urola Kostako Udal Elkartearentzat dituen edukiontziak jaso, muntatu eta gordetzeko eremu bat izango du.

7.1.11. Hondakinak uzteko eremuak zehaztea

Edukiontzi bakoitzak identifikatzeko duen zenbakiaz gain, esleipendunaren betebeharra izango da edukiontzien hondakin eremua zenbaki bidez identifikatzea. Zenbaki hori inprimatuta egongo da Urola Kostako Udal Elkarteak jarritako euskarriaren batean. Esleipendunaren kargu joango da identifikatzeko gailu hori inprimatu eta jartzea.

Zenbaki hori hondakinak biltzeko eremuko edukiontzi batean jarriko da, eta erraz ikusiko da hondakinak biltzeko edo garbitzeko kamioiaren kabinatik.

7.2. EDUKIONTZIAK GARBITU

7.2.1. Objektua



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Esleipendunaren betebeharra da Urola Kostako Udal Elkarteko udalerrien lurralde eremuan dauden gaikako bilketetarako edukiontzi guztiak sakon garbitu eta desinfektatzea, edukiontzi horiek garbitasun eta higiene egoera onean eta itxura onarekin egoteko.

Beira gaika biltzeko erabiltzen diren edukiontziak ere garbitu egingo ditu esleipendunak.

7.2.2 Garbitzeko lekua

Edukiontziak garbitzeko lan arruntak honako bide hauetakoren bat erabiliz (edo bat baino gehiago erabiliz) egingo dira:

- a) Tokian bertan, hau da, edukiontziak jarrita dagoen lekuan
- b) Esleipendunaren instalazio finkoetan
- c) Hurbil dagoen eremu batean, aurrez Urola Kostako Udal Elkarteak baimena emanda

Garbitzeko lanak tokian bertan egiten badira, esleipendunak behar diren neurriak hartuko ditu garbitzeko lanekin inguruko pertsona nahiz ondasunei eragozpenak sortzea ekiditeko, garbitzeko ibilgailua edukiontziaren inguruan aparkatzea barne.

Edukiontziaren kokapena dela eta, neurri horiek ez baldin badira aski izango, edukiontziak garbitzeko lanak egingo dira derrigorrez esleipendunaren instalazio finkoetan edo hurbil dagoen eremu batean (aurrez Urola Kostako Udal Elkarteak hurbil dagoen eremu horretan egiteko baimena eman behar du).

Horrela baldin bada, garbitu behar den edukiontziaren erabiltzaileei eskura jarri behar zaie dena delako hondakin horiek botatzen jarraitzeko aukera, eta, horretarako, esleipendunak kendu duen edukiontziaren antzeko beste bat jarri beharko du.

7.2.3. Garbitzeko maiztasuna

Edukiontziak garbitzeko honako lanak egingo dira, adierazten den maiztasunarekin:

- a) Papera eta kartoia biltzeko edukiontziak, albotik kargatzen direnak (eta, bestela, atzetik kargatzen direnak):
 - Kanpotik eta barrutik, garbiketa mekanizatua: 4 astean behin
 - Kanpotik, eskuz: 12 astean behin.
- b) Ontzi arinak biltzeko edukiontziak, albotik kargatzen direnak (eta, bestela, atzetik kargatzen direnak):
 - Kanpotik eta barrutik, garbiketa mekanizatua: 4 astean behin
 - Kanpotik, eskuz: 12 astean behin.
- c) 1.000 litroko edukiontziak (kartoia biltzekoak) eta 240-360 litroko edukiontziak (paper zatiak biltzekoak):
 - Kanpotik eta barrutik, eskuz: garbitzeko maiztasuna honakoen arabera zehaztuko da: edukiontziaren zikinkeria egoera, edukiontziak jarrita duen establezimenduak garbitzeko aurrez



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

eginiko eskaera, Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoek esleipendunari eginiko berariazko eskaera. Maiztasuna horrela erabakitzeak ez du esleitzeko prezioa inola ere aldaraziko.

d) Pilak gaika biltzeko edukiontziak:

- Klean jarritako edukiontziak, kanpotik, eskuz: 12 astean behin.

e) Beira jasotzeko iglu erako edukiontzi monomaterialak:

- Kanpotik, eskuz: 12 astean behin.

f) Paper, kartoi eta ontzi arinen lurpeko edukiontziak:

- Kanpotik eta barrutik: 4 astean behin

Horiek gutxieneko maiztasunak dira, eta, beraz, Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoek eskatuz gero, esleipendunak garbitu egin beharko ditu maiztasun epe horien barruan nabarmen zikinak dauden edukiontziak, esleitzeko prezioa aldatu gabe.

7.2.4. Edukiontziak kanpotik garbitzeko lanen deskribapena

a) Kanpotik, eskuz:

Edukiontziak kanpotik eskuz garbitzeko honako prozedurari jarraituko zaio:

- a) Lehendabizi, edukiontzia itsatsita dauden osagai arrotzak kenduko dira eskuz (kartelak, zinta itsaskorrak, pegatinak...).
- b) Jarraian, kanpoko azalera eraginkorra den garbigarri batekin langartuko da, eskuz nahiz makina baten bidez. Garbigarri hori dosifikatuko da egileak aholkatutako kontzentrazio mailan, biodegarria izango da %90ean, hezetzeko ahalmen handiko tentsioaktiboak, grasaren emulsionatzaileak eta uraren gogortasunaren bahitzaileak izango ditu; eta, apar kopuru txikia sortuko du.
- c) Amaitzeko edukiontzia urarekin (hotzarekin nahiz beroarekin) garbituko da, presio handiko lantza batekin.

Presio-lantzarekin ondo garbitu ezin diren lekuak eskuz garbituko dira, beharrezkoa baldin bada.

Garbitzeko lanak amaitu ondoren, edukiontzia kanpoko azalera zikinkeriarik bat ere gabe geldituko da.

Garbitzeko lan horietan edukiontzien hartzen duten lur eremua ere garbitu egingo du esleipendunak, eta arreta berezia eskainiko die edukiontzia azpiko aldeari eta inguruari, eta erratzez eta urez garbituko ditu osorik.

Edukiontziak husteko lanetan bidera, bide ertzerara, estolderiara edo antzekoetara erortzen diren hondakinak berehala bilduko ditu biltzeko lantaldeak, biderik egokiena erabiliz, betiere kaleak garbitzeko udal zerbitzuek parte hartu gabe.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Garbitzeko lanak egiteko erabiltzen diren prozedura eta garbigarriak erabiltzeko, aurrez, Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoen baimena jaso behar du esleipendunak. Zerbitzu tekniko horiek, lortutako garbitasun maila kontuan hartuta, jarraibide eta agindu zehatzak eman ahal izango dituzte, eta esleipendunak agindu eta jarraibide horiek bete egin beharko ditu. Horretarako, esleipendunak froga praktiko bat egin beharko du Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoen aurrean, zerbitzua eskaintzen hasi aurretik, edukiontzi kopuru txiki batekin, proposatutako garbiketa sistemaren eraginkortasuna neurtzeko.

Edukiontziak kanpotik garbitzeko hidrogarbigailu bat erabiliko da (ur hotzarekin nahiz beroarekin). Gailu horrek deskribatutako prozedurarekin edukiontzia kanpotik garbitzeko behar diren osagai guztiak izango ditu. Dena dela, leku jakin batzuetan edukiontzia kanpotik eskuz garbitu ahal izango da edukiontziak garbitzeko ekipo baten presio-lantza erabiliz.

“Kanpotik eskuz garbitu” esandakoan, ez dira sartzen edukiontziak garbitzeko ekipo baten bidez era mekanikoan egin litezkeenak.

b) Kanpotik, era mekanikoan:

Edukiontziak kanpotik era mekanikoan garbituko dira edukiontziak garbitzeko ibilgailuarekin. Makina horrek edukiontzia garbiketa ziklo bat aplikatzen dio, ura presio altuarekin botatzen duten barra batzuen bidez (barrak tutu txiki batzuk dituzte).

7.2.5. Edukiontziak barrutik garbitzeko lanen deskribapena

a) Barrutik, garbiketa mekanizatua:

Edukiontziak barrutik era mekanikoan garbitzeko edukiontziak garbitzeko ibilgailu bat erabiliko da, ur hotz edo beroarekin, baldintzen horri honetan agertzen diren albotik kargatzeko edukiontziak nahiz atzetik kargatzeko edukiontziak garbitzeko.

Kamioia prestatuta egongo da edukiontziak barrutik nahiz kanpotik garbitzeko, ibilgailuaren eginkizun nagusia barrualdea garbitzea izango bada ere. Garbiketarako unitateak behar adinako luzera izango duen mahuka eta ura presio altuan botatzeko pistola edo lantza izango ditu, garbiketa osatzeko eta edukiontzietan nahiz horiek hartzen duten lurzoruan eskuz egin behar diren garbiketa lan osagarriak egiteko.

Edukiontziak barrutik era mekanikoan garbitzeko, edukiontziak garbitzeko ibilgailuak garbitzeko zikloak egingo ditu, itzulika dabilzan eta norabide guztietara ura presio altuan botatzen duten buruen bidez. Buru horiek ura edukiontzia ormetara oso gertutik botatzen dute eta edukiontziak ondo garbitzea lortzen da. Edukiontzia barrutik garbitzeko lanetan edukiontzia barrualdeko puntu guztiak garbituko dira, estalkiarenak, kubetarenak, kubetaren alboko azalera, fondoa eta alboen eta fondoaren arteko lotura guneak.

Edukiontziak garbitzeko ibilgailuak erabiltzen duen ur garbia eta zikina kudeatzea esleipendunari dagokio.

Edukiontziak barrutik garbitzeko lanak koordinatuta egongo dira edukiontzi horiek husteko egutegiarekin, garbitzera joandakoan edukiontziak barnean hondakinik izan ez dezan edo ahalik eta hondakinik gutxien izan dezan.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

7.2.6. Garbitzeko ordutegia

Hiri barruan dauden edukiontziak kanpotik eskuz garbituko dira egunez, herritarrei eragozpenak sortzea galarazteko.

Gainerako garbiketa lanetan ordutegia erabakiko da zerbitzuaren beharren arabera.

7.3. EDUKIONTZIEN ZAINKETA ETA MANTENTZE-LANAK

Zerbitzu hori honetan datza: jarrita dauden edukiontzi guztiak zaindu eta mantentzeko lanak egitea, era INTEGRALEAN, beti erabiltzeko egoera onean egoteko, erabiltzaileentzat nahiz garbitzeko eta biltzeko zerbitzuentzat.

Esleipendunaren betebeharra izango da emakidari atxikitako edukiontzi guztien mantentze lan prebentiboak nahiz zuzentzaileak (lur gainekoak nahiz lurpekoak) antolatu eta egitea.

Esleipendunak programa edo egitarau bat egingo du, edukiontzien maiztasun jakin bateko mantentze-lan orokorrak egiteko. Egitarau horretan zehaztuko dira mantentze-lan prebentiboko lan guztiak.

Mantentze-lanetan honakoak egingo dira gutxienez:

- Edukiontziak erabiltzeko eta zaintzeko egoera berrikusi maiztasun jakin batekin.
- Hondatuta edo akatsarekin dauden osagaiak konpondu edo aldatu.
- Osagai batzuk olioztatu.
- Balaztatzeko sistema berrikusi (sistema hori duten edukiontziei).
- Osagai islatzaileak eta bestelako itsasgarriak ordezkatu.
- Edukiontzia identifikatzeko zenbakia eta, baldin badu bilketa eremuarena, ordezkatu, zenbakia behar bezala ikusten ez bada.
- Herdoil arrastoak kendu.
- Pintadak eta grafitiak kendu, eraginkorrak diren baina edukiontzari kalterik egiten ez dioten produktuekin.
- Edukiontzia zatiak konpondu, kolpe eta antzeko urratuak baldin badituzte.
- Edukiontzia zatiak konpondu, marruskadura eta arrastoen ondorioz pintura edo materiala jausten ari bada.
- Nahita nahiz ustekabean erretako edukiontziak edo indarkeria ekintzak jasaten dituzten edukiontziak ordezkatu.
- Urola Kostako Udal Elkartean jarritako edukiontzien egileek edukiontzi horiek zaindu eta mantentzeko eskuliburuetan aholkatzen dituzten bestelako lanak.

Arrazoiak edozein izanik ere (pintadak, grafitiak, mailadurak, deformazioak, arrastoak, pintura edo materiala galtzea, nahita edo ustekabean erretzea eta abar), edukiontzia oso hondatuta baldin badago eta, Udal Elkarteko Zerbitzu teknikoen iritziz, konponketa lan txikiak egitea aski ez baldin bada, esleipendunak honakoa egin beharko du, Zerbitzu Tekniko horren eskariz: edukiontzia horretan gaituta dagoen karrozeria-tailer batera eraman konpontzera, eta, beharrezkoa bada, oso-osorik margotuko labean margotzeko kabina batean, edo edukiontzi hori berri batekin ordezkatu.

Gerora sortutako arrazoiak direla eta, programa edo egitarauan jaso gabeko mantentze-lanak sortzen badira, esleipendunak lan horiek 24 orduko epearen barruan egingo ditu, anomalia atzeman den unetik



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

hasita. Horrela egitea ezinezkoa baldin bada, edukiontzi hori antzekoa den beste batekin ordezkatu du.

Mantentzeko lanak honako bide hauetakoren bat erabiliz (edo bat baino gehiago erabiliz) egingo dira:

- a) Tokian bertan, hau da, edukiontzia jarrita dagoen lekuan
- b) Esleipendunaren instalazio finkoetan
- c) Hurbil dagoen eremu batean, aurrez Urola Kostako Udal Elkarteak baimena emanda

Mantentze-lanak bertan egingo dira lan txikiak baldin badira, erabiltzaileek edukiontzia erabiltzea edo hondakinak biltzeko zerbitzuak edukiontziak manipulatzeko galaraziko ez badute eta bidean inolako oztoporik eragingo ez badute.

Horrela ez baldin bada, mantentze-lanak egingo dira derrigorrez esleipendunaren instalazio finkoetan edo hurbil dagoen eremu batean (aurrez Urola Kostako Udal Elkarteak hurbil dagoen eremu horretan egiteko baimena eman behar du). Horrela baldin bada, garbitu behar den edukiontziaren erabiltzaileei eskura jarri behar zaie dena delako hondakin horiek botatzen jarraitzeko aukera, eta, horretarako, esleipendunak kendu duen edukiontziaren antzeko beste bat jarri beharko du.

Esleipendunak eskura izango du jarrita dauden edukiontzien ordezeko osagaien nahiz unitate osoen behar adinako stocka (estalkiak, gurpilak, igotzeko sistemak eta abar). Esleipendunak hartuko du bere gain behar diren ordezeko osagairik ez duelako mantentze-lan arruntak egiten edo edukiontziak konpontzen izan lezakeen atzerapenaren erantzukizuna.

Matxuratuta edo hondatuta dauden osagaiak ordezkatu edo konpontzeko jatorrizko osagaiak erabiliko dira, hau da, edukiontzia egin duen etxeak hornitzen dituenak.

Esleipendunak edukiontziak zaindu eta mantentzeko zerbitzuari honakoak jarriko dizkio eskura: langile koalifikatu bat, mantentze-lan prebentibo nahiz zuzentzaile oro tokian bertan egiteko behar diren tresna, erreminta eta ordezeko osagaiekin.

Erabilpen eksklusiboko edukiontzien mantentze-lanak erabiltzaileari dagozkio.

7.4. EDUKIONTZIAK ORDEZKATU

Esleipendunak, emakida indarrean dagoen epearen barruan, ordezkatu egin behar ditu, arrazoia edozein izanik ere, beren lekutik desagertzen diren edukiontziak edo nabarmen hondatuta daudenak (indarkeria ekintzen ondorioz erre edo suntsitzeagatik, lapurtzeagatik, oker erabiltzeagatik, ibilgailuen kolpeengatik, zuhaitzak eta adarrak erortzeagatik eta abar).

Horretarako, esleipendunak eskura izan behar du derrigorrez erabiltzen diren edukiontzi mota guztien behar adinako stocka, ordezkatu behar diren edukiontziak berehala ordezkatu ahal izateko.

7.5. EDUKIONTZIAK JARRI, LEKUZ ALDATU ETA ANTZEKO LANAK EGITEA

Esleipendunaren betebeharra da honako lanak egitea:



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

- a) Edukiontzia hartu, muntatu, zamatatu, garraiatu eta kokapen berrietan jarri edo daudenekin ordezkatu.
- b) Jarritan dauden edukiontzia lekuz aldatu, justifikatutako arrazoiengatik (zerbitzuaren beharrak, obrak, ibilgailuen trafikoan aldaketak, ikuspenik eza ibilgailu edo oinezkoentzat, gizarite, kultura edo kirol ekitaldiak eta abar).
- c) Indarkeria ekintzak edo istiluak izan litezkeen eremuetako edukiontzia erretiratu eta jarri, horretarako Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak Udal Elkarteari egiten dizkion eskakizunen arabera.
- d) Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoek agindutako antzeko lanak egin.

Esleipendunak Urola Kostako Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoek zerbitzu horri buruz ematen dizkion aginduak bete behar ditu, adierazten dion epean.

7.6. HONDAKINAK BILTZEKO EREMUEN ERAGIN ESPARRUA

Kontratu honi dagokionez, honela definitzen dira:

- a) **Hondakinak biltzeko eremua:** Urola Kosta eskualdeko lurralde eremuan dauden eta gutxienez papera eta kartoia edo/eta ontzi arinak biltzeko Udal Elkartearen edukiontzia ditzuten eremu guztiak. Beraz, kontratu honi ez dagozkio zaborra, arropa eta ehunkiak eta beira biltzeko edukiontzia soilik ditzuten eremuak.
- b) **Hondakinak biltzeko eremuaren eragin esparrua:** hondakinak biltzeko eremuan dauden edukiontzia GUZTIEK (papera eta kartoia eta ontzi arinak, eta arropa eta beira edukiontzia baldin badaude) hartzen duten azalera eta horien inguruko gutxienez 2 metroko azalera osoa. Halaber, eragin eremuan daudela iritziko zaie erabiltzaileek edukiontzia kanpoaldean utzitako hondakinei, erabiltzaileak hondakinen eremu horretan biltzeko asmoarekin utzitakoei, nahiz eta gorago aipatutako 2 metroko eremuan ez egon.

Kontratuaren jabeak kontratu honen bidez bere egiten du papera eta kartoia edo ontzi arinak biltzeko edukiontzia hustu ondoren edukiontzia eragin esparrua hondakinik gabe uzteko konpromisoa betetzeko ardura.

Horretarako, kontratuaren jabearen langileek honako lanak egingo dituzte, gutxienez, papera eta kartoiaren edo ontzi arinen edukiontzia hustu eta hurrengo bilketa eremura joan aurretik:

- a) Beirazko hondakinak jaso eta beira gaika biltzeko iglu berdera bota. Hondakinak biltzeko eremu horretan iglu berderik ez baldin bada, beira hondakin horiek hurbilen dagoen zabor edukiontzira bota.
 - b) Arropa, ehunki eta antzeko hondakinak bildu eta hondakin horiek gaika biltzeko edukiontzira bota. Hondakinak biltzeko eremu horretan arropa edukiontzirik ez baldin bada, arropa hondakin horiek hurbilen dagoen zabor edukiontzira bota.
 - c) Ontzi arinen hondakinak (plastikoa, metala eta krikak) bildu eta hondakin horiek gaika biltzeko edukiontzira bota. Hondakinak biltzeko eremu horretan ontzi arinen edukiontzirik ez baldin bada, ontzi arinen hondakin horiek hurbilen dagoen zabor edukiontzira bota.
-



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

- d) Paper eta kartoi hondakinak bildu eta hondakin horiek gaika biltzeko edukiontzira bota. Hondakinak biltzeko eremu horretan paper eta kartoi edukiontzirik ez baldin bada, paper eta kartoi hondakin horiek hurbilen dagoen zabor edukiontzira bota.
- e) Sailkatu gabeko hondakinak bildu eta hurbilen dagoen zabor edukiontzira bota. Edukiontzien kanpoaldean eta eragin esparruaren barruan paper, kartoi eta ontzi arinen hondakinak baldin badaude, kontratuaren jabearen langileek, aurrena, hondakin horiek dagokion edukiontzira botako dituzte (edukiontzian lekurik izanez gero), eta, ondoren, edukiontzia hustuko dute. Horrekin lortu nahi da edukiontzia hustu ondoren materialik ez botatzea eta, beraz, edukiontzia edukiera ez murriztea.

7.7. EDUKIONTZIAK JARRI, GARBITU, MANTENTZE-LANAK EGIN ETA ORDEZKATZEKO ZERBITZUAREN ANTOLAMENDUA.

Enpresa lehiatzaileei dagokie sistemarik eraginkorrenak proposatzea, gorago aipatutako zerbitzuak proposatutako bitartekoekin bideratzeko.

Lehiatzaileek xehetasun osoz zehaztuko dute zerbitzuaren antolaketa, bitarteko eta langileen egitasmoa, eta honako alderdiak azalduko dituzte gutxienez:

a) Edukiontzia jarri:

- Edukiontzia jartzeko azterketa, behar bezala arrazoituta.
- Zerbitzu ezberdinetzat proposatutako edukiontzien deskribapen zehatza.
- Plano zehatzak (paper euskarrian eta euskarri elektronikoan), eskala egokian eginak, hustu behar diren edukiontzien kokapen zehatzarekin.
- Edukiontzi mota bakoitzarentzat aurreikusitako stocka, honakoetarako:
 - edukiontzi berriak jartzeko eskariei erantzuteko
 - edukiontzia ordezkatzeko
 - zerbitzua indartzeko edozein unetan sor daitekeen beharrari erantzuteko, sortzen den hondakinen kopurua areagotzen delako (gertakari edo ekitaldi bereziak, urte sasoiaren araberako gorabeherak...)
- Edukiontzi berriak banatzeko eta erabiliko ez direnak erretiratzeko ekintza plana.
- Gertakari edo gorabehera berezi edo, oro har, ohi baino hondakin gehiago biltzea ekar dezaketen egunei aurre egiteko aurreikusitako ekintza plana.
- Hondakinak biltzeko eremuak identifikatzeko sistema.

b) Edukiontzia garbitu:

- Zerbitzu ezberdinetako edukiontzia garbitzeko plana.
- Edukiontzia kanpotik nahiz barrutik garbitzeko lanen deskribapen zehatza.
- Garbitzeko ekipoen deskribapena: ibilgailua, langileak eta ibilbidea.
- Garbitzeko ibilbideak, behar bezala arrazoituta, bakoitzean honakoak adieraziz:
 - Ibilbidea
 - Egingo diren kilometroen aurreikuspena
 - Garbituko dituen edukiontzien kopurua, jarritako edukiontzi motak (albotik edo atzetik kargatzekoak, lurpekoak) eta edukiontzien kokapena udalerrira
 - Hasierako eta aurreikusitako amaierako ordua



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

- Batez beste honako lanotan egingo den denbora: edukiontziak garbitzen eta batetik besterako joan-etorrietan
- Garbitzeko lanetan erabilitako ur garbia eta ur zikina kudeatzeko era.
- Plano zehatzak (paperean eta euskarri elektronikoan), eskala egokian, honakoak adieraziz: garbitzeko ibilbideak eta garbitu behar diren edukiontziak.
- Garbitzeko egutegia eta ordutegia, honakoak adieraziz:
 - Garbitzeko lanak egiteko egunak eta ordutegiak, udalerrria, eta udalerrri bakoitzean hirigune nagusia, auzoak eta antzekoak bereizita
 - Egutegiko egun bakoitzean zerbitzua jasoko duten udalerrriak eta udalerrri bakoitzean zerbitzua jasoko duten hirigune, auzo eta eremuak
- Ekintza plana, garbitzeko ibilgailuren bat matxuratuz gero indarrean jarriko litzatekeena
- Koordinazio-maila, hondakinak biltzeko beste zerbitzuekin.

c) Edukiontzien mantentze-lanak:

- Edukiontziak zaindu eta mantentzeko lan prebentibo nahiz zuzentzaileak egiteko plana (albotik eta atzetik kargatzen diren edukiontziak, pilak biltzeko ontziak eta lurpeko edukiontziak).
- Mantentze-lanen deskribapen zehatza eta horiek burutzeko era.
- Mantentzeko lanen ekipoaren deskribapena (ibilgailua eta langileak).
- Jarrita dauden edukiontzi moten ordezeko osagaien stock-aren deskribapena.

d) Edukiontziak ordezkatu:

- Edukiontziak ordezkatzeko sistema eta aurreikusten den ordezkatzeko kopurua

e) Edukiontziak jarri, lekuz aldatu eta antzeko lanak egin:

- Edukiontziak jarri, lekuz aldatu eta antzeko lanak egiteko zerbitzuari eskainitako ibilgailu eta langileak eta horien eskuragarritasuna.

f) Zerbitzua hobeto deskribatzeko egoki irizitako bestelako datuak

8. INSTALAZIO FINKOAK

Lehiatzaileek Udal Elkartearen lurralde eremuan nabe bat izango dute behar diren ekipamenduekin (ibilgailuentzako aparkalekua, garbitzeko lekua, ordezekoen biltegia, arropa biltegia, olio eta lubrikatzaileen biltegia, tailerra, konponketa zuloa, aldagelak, komunak, bulegoak eta abar), kontratu honen objektu diren zerbitzuak eraginkortasunez burutu ahal izateko.

Esleipenduna arduratuko da, halaber, administrazioak eskatzen dituen osasun, segurtasun eta ingurumen baldintzez, eta, horretarako, ezarritako neurri zuzentzaileak bideratu beharko ditu instalazio finkoak erabiltzen dituen epe osoan.

Esleipendunak ezingo ditu instalazio finko horiek erabili kontratu honen objektua burutzeko ez bada, ez eta Urola Kostako Udal Elkarteak ez den beste erakunde bati zerbitzua eskaintzeko oinarri edo lagungarri gisa erabiltzeko ere.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Esleipendunaren betebeharra da instalazio finkoaren eta bertako ekipo, makina, altzari eta bestelakoen mantentze-lan prebentibo eta zuzentzaileak antolatu eta egitea. Zehatzago esateko, esleipendunak honakoak egin behar ditu:

- Nabeko makinak eta ekipoak erabili makina horien egileak (edo instalatu duenak) emandako erabiltzeko eskuliburuaren argitara, betiere teknika eta segurtasun arau ofizialei eta erabilpen egokirako arauei jarraituz.
- Mantentze-lan prebentibo orokorrak maiztasunez egin eta nabeko osagai bakoitzaren eta guztiak zaintzeko lanak egin, beti erabiltzeko egoerarik onenean eta segurtasun eta osasun-egoera onean egoteko. Lan horietan egileen mantentzeko eta zaintzeko eskuliburuetan ezarritakoak aplikatuko dira, lehiaketan esleipendunak eskainitako mantentze-lan prebentiboan planarekin osatuta.
- Esleipendunak programa edo egitarau bat egingo du, mantentze-lan prebentiboko lan guztiak zehazten dituen. Lan horiek zer eta nola egin diren adieraziko da maiztasun egoki batekin Urola Kostako Udal Elkarteari horri buruz aurkezten zaizkion txostenetan

Esleipendunak instalazio finkoak garbi eta txukun zainduta edukitzeko betebeharra du. Garbitzeko eremua, aparkalekua, tailerra eta gainerakoak garbi eta txukun geldituko dira laneguna amaitzen denean, zikinkeria pilatzea eta instalazio horiek hondatzea saihesteko. Horrez gain, lur, eskailera, aldagela eta gainerakoen garbiketa orokorra egunero egingo da.

Metalezkoak diren zatiak behar adina aldiz pintatuko dira, pintura egokiarekin, korrosioa saihesteko.

Esleipendunak instalazio finkoetako osagaiak (ekipo, makina, lurzorua eta abar) konpondu behar ditu, hondatzen baldin badira.

Instalazio finkoen egoera eta funtzionamendua Urola Kostako Udal Elkarteko langileek (edo eta eginkizun hori ematen zaien laguntzaile eta profesionalek) maiztasunez ikuskatuko dute, mantentze-lanen eraginkortasuna egiaztatzeko. Esleipendunak ikuskatze lan horiek erraztuko ditu, instalazioetara sartzeko baimena emango du, eskatutako datuak eta kontrol frogak eskura jarriko ditu. Ikuskatze horrek erakusten badu mantentze-lanak ez direla egiten edo ez direla behar bezala egin, Udal Elkarteak lan horiek esleipendunaren kargura egiteko agindua eman ahal izango du.

Instalazio finkoen erabilpenak eragiten dituen gastu guztiak (ura, argi-indarra, telefonoa...) esleipendunari dagozkio.

Kontratuaren jabeak, bestalde, industria arriskuen poliza bat kontratatu beharko du, instalazio finkoetako kalteen arriskuak estaltzeko (suteak, ura, lapurretak, kalte elektrikoak eta abar). Kalteen estaldurak bermatu behar du edukaren nahiz edukitzailearen berritako balioa.

9.- LANGILEAK

Kontratuaren jabeak uneoro eskura izango ditu zerbitzu publikoa eraginkortasunez kudeatzeko behar diren langileak, eskakizun teknikoaren orriotan ezarritako jarraibide eta zehaztapenen arabera.

Lehiatzen duten enpresek kontratuaren objektu diren zerbitzuak nola antolatu aztertuko dute eta eskaintzan beharrezko aurreikusten duten langile taldearen eta horien eginkizunen proposamen zehatza egingo dute.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Gorago adierazitako langile taldea kontratuaren objektu diren lanak egiteko esleipendunak eskura izan beharko duen gutxienekoa da. Esleipendunak langile talde hori handitu egin beharko du beharrezkoa bada, zerbitzu publikoa behar bezala burutzea bermatzeko, kontratuaren alderdi guztietan, eta horrek ez du esleitzeko prezioa igotzerik ekarriko.

Esleipendunak zerbitzuari uneoro eskaini behar dizkio kontratuaren objektu diren zerbitzuak eraginkortasunez burutzeko eta bestelako gorabeherei aurre egiteko (bajak gaixotasun edo istripuengatik, baimenak, sindikatu-lanak, oporrak, behar bezala justifikatutako bestelako gorabeherak, ustekabeko bajak eta lanuzteak) behar diren giza baliabideak (langile zuzenak nahiz zeharkakoak). Esleipendunak lanuzte edo baja horiek berehala bete behar ditu. Lanpostu horiek beteko dituzte lanpostuaren eginkizunak burutzeko beharrezko prestakuntza duten langileek.

Zerbitzua behar bezala eskaintzeko langile kopurua handitzea beharrezkoa baldin bada, edo esleipendunaren langileak ordezkatu behar badira (opor, baimen eta antzekoengatik), ordezko langileak hartzeko lehentasuna izango dute Urola Kostako Udal Elkartearen udalerrietan bizi diren langabeek.

Kontratuaren jabeak arduradun bat izendatuko du. Arduradun horrek gaitasuna izango du kontratuarekin zerikusia duten gaietan erabakiak hartzeko, kontratatutako zerbitzua behar bezala antolatu eta burutzeko erantzukizuna izango du, Urola Kostako Udal Elkartearen Zerbitzu Teknikoen solaskidea izango da eta zerbitzuei buruz zerbitzu Tekniko horiek emandako agindu eta jarraibideak jaso eta betearaziko ditu.

Arduradun horrek ibilgailu bat eta bitarteko osagarriak (telefono mugikorra, ordenagailua eta abar) izan behar ditu eskura, zerbitzuak kontrolatu eta ikuskatzeko lanak egitea errazteko.

Esleipendunak ezingo du arduraduna beste pertsona batekin ordezkatu, enpresako beste erantzukizun edo eginkizun batzuk egiteko, Urola Kostako Udal Elkarteak, aurrez, berariaz eta idatzita baimena eman ezean.

Arduradunaren eginkizunen garrantzia kontuan hartuta, Urola Kostako Udal Elkarteak eskubidea du esleipendunak lan hori egiteko izendatzen duen pertsona onartu edo ez onartzeko. Halaber, arduradunaren prestakuntza, esperientzia edo egindako lana lanpostuaren eginkizun eta ardurekin bat etorriko ez balitz, Udal Elkarteak berehala pertsona hori ordezkatzeko eskatu ahal izango du. Adierazi berri dugun hori gertatzen bada, emakidaren jabeak arduradun lanpostuan ari den pertsona ordezkatu beharko du, gehienez ere hilabeteko epearen barruan, jakinarazpena jasotzen denetik kontaktatzen hasita. Aldaketa horrek ez du esleitzeko prezioa aldatuko.

Urola Kostako Udal Elkarteak ez du inolako harreman juridiko edo lan harremanik izango esleipendunaren langileekin, ez kontratua indarrean dagoen epearen barruan, ez kontratua amaitu ondoren. Esleipendunari dagozkio kontratu honen haritik esleipendunaren eta bere langileen artean sortzen diren betebeharrak, kalte-ordain eta erantzukizun guztiak.

Esleipendunak Gizarte Segurantzako, lan istripuen gaineko eta PFEZaren gaineko dagozkion lan bete behar guztiak bete behar ditu.

Kontratua indarrean dagoen epearen barruan hasieran finkatutako lantaldean, arrazoia edozein dela ere (erretiroa hartzea, heriotza, borondatezko baja, lanetik kanporatzea, elbarritasuna edo antzekoak eta zerbitzuaren beharrak), aldaketa bat gertatzen bada, esleipendunak aurrez Udal Elkarteari jakinarazi



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

egin behar dio eta baimena idatziz eman dezala eskatu, aldaketa hori egin eta lanpostu hutsak nahiz sortu behar direnak betetzeko.

Lehiatzaileek beren eskaintzan emakidako langileak antolatzeko eta kudeatzeko aurreikusten duten proposamena azaldu behar dute, honako alderdiak adieraziz:

- a) Kontratuaren objektu diren lanak egiteko behar diren langileak, egindako azterketak kontuan hartuta. Honakoak adierazi behar dira:
 - Prestakuntza-maila
 - Egingo dituen lanak eta orduen dedikazioa (ordutan eta lanaldiaren % adierazita)
 - Lansari-maila, kontzeptu guztiak banan-banan adierazita (oinarria, osagarriak, gizarte segurantzak eta abar)
 - Kontratu-mota eta iraupena
 - Unitate-kostua: urtekoa, lanegunarena eta lanorduarena.
- b) Langileen hutsuneei (ustekabekoei barne) aurre egiteko antolamendua eta prozedura, hutsunea berehala betetzea bermatzeko eta ordezkotako langileak egin behar dituzten lanak ondo ezagutzea bermatzeko (hondakinak biltzeko ibilbideak, pisatzeko era, zama-lanak eta abar).
- c) Enpresa lehiatzailean indarrean dagoen lan-hitzarmena.
- d) Langileen kudeaketaren inguruko bestelako alderdiak: lan osasun eta higiena, langileen prestakuntza, lanaren egonkortasuna eta abar.

10. IBILGAILUAK ETA MAKINAK

Lehiatzen duten enpresek kontratuaren objektu diren zerbitzuek behar dituzten bitarteko materialak aztertuko dituzte eta beharrezko aurreikusten dituzten ibilgailu eta bitarteko osagarrien proposamen zehatza egingo dute beren eskaintzan. Argi eta garbi adieraziko dute zeintzuk diren zerbitzua behar bezala burutzeko behar diren bitartekoak eta zeintzuk ordezkotakoak, hau da, egunero erabili ez baina erabiltzen direnen ordezkotako erabiliko liratekeenak, matxurengatik edo aldi bereko mantentze lan edo zerbitzua indartzeko lanengatik.

Gorago adierazitako bitartekoak kontratuaren objektu diren lanak egiteko esleipendunak eskura izan beharko dituen gutxienekoak dira. Esleipendunak bitarteko horiek handitu egin beharko ditu beharrezkoa bada, zerbitzu publikoa behar bezala burutzeko bermatzeko, kontratuaren alderdi guztietan, eta horrek ez du esleitzeko prezioa igotzerik ekarriko.

Eskaintzan adierazten den materiala xehetasun osoz deskribatu behar dute lehiatzaileek, eta erantsiko dituzte planoak, krokisak, eskemak, argazkiak eta proposamena ahalik eta ondoen azaltzeko egoki irizitako datu guztiak.

Ibilgailu guztiak GPS sistema izango dute, uneoro non dauden jakin ahal izateko. Halaber, esleipendunak ibilgailuen mugimenduak kontrolatzeko programa bat (bere erabilpen-baimenarekin) jarriko du, gutxienez, Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoen esku. Programa horrek ibilgailuaren une horretako kokapenaren, kokapen diferituaren eta mugimenduen informazio historikoaren berri emango du. Lehiatzaileek proposatzen dituzten sistemen ezaugarri eta ahalmena xehetasun osoz deskribatu behar dituzte.

Lehiatzaileek beren eskaintza egiteko material berria hartuko dute kontuan.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Esleipendunak ordezeko ibilgailuen dotazio bat izango du eskura, kontratatutako lan bakoitza garaiz, ezarritako egutegi eta ordutegian, egiten dela bermatzeko. Ordezko ibilgailutzat ez dira hartuko esleipendunaren instalazio finkoetan ez dauden eta emakida honi atxikita ez dauden ibilgailuak.

Zerbitzuei atxikitako bitarteko arruntek nahiz ordezekoek bermatu behar dute zerbitzuak burutuko direla denbora tarte egokiarekin, lanen plana garaiz egin eta sor litekeen edozein ustekabeko gainditu ahal izateko.

Lehiatzaileek proposatzen dituzten ibilgailu eta materialak zerbitzua burutzeko egokienak izango dira. Horretarako, kontuan hartuko dira hainbat faktore: kale eta bideen zabalera, hondakinak biltzeko eremu barreiatuak eta abar. Ibilgailuak hautatzeko, bestalde, ibilgailuen ezaugarri hauek kontuan hartuko dira:

- Lanak egiteko azkartasuna eta eraginkortasuna (edukiontziak hustu, garbitu eta abar)
- Hondakinak jasotzeko edukiera handia
- Hondakinak erraz hustea
- Funtzionamenduak ahalik eta zarata gutxien sortzea
- Maniobratzeko erraztasuna, erabiltzeko fidagarritasuna eta segurtasuna
- Garbitzeko eta mantentze-lanak egiteko erraztasuna
- Iraunkortasuna, korrosioari eta higadurari dion erresistentzia
- Estetika

Txasisa hautatzeko, lehiatzaileek lehentasuna emango diete mantentzeko eta konpontzeko zerbitzu ofiziala Udal Elkartearen lurralde eremuan edo hurbil duten egileei.

Lehiatzaileak funtzionamendu isila duten ekipoak hartu behar ditu aintzat, ibilgailuak sortzen duen zaratak (joan-etorrian dabilela edo hondakinak kargatzen edo edukiontziak garbitzen ari dela) inola ere ez dezan gainditu pertsonen eragozpen edo ondoeza sortzeko zarata-mailarik.

Urola Kostako Udal Elkarteak irizten dio herritarrak kutsadura akustikotik babesteak, besteak beste, motorra duten ibilgailu guztien zarata-maila murrizteko neurriak hartzea eskatzen duela, bereziki hondakinak bildu eta garraiatzeko eta edukiontziak garbitzeko ibilgailuenak. Izan ere, gehiegizko zaratak eragozpen eta ondoez nabarmenak eragiten ditu pertsonen osasunean, alderdi fisiologikoan nahiz psikikoan.

Beraz, ibilgailua, bere motorra, edukiontziak igotzeko sistema, hondakinak zapaltzeko sistema, edukiontziak garbitzeko sistema, ihes-hodia, balaztatzeko sistema eta, oro har, zarata edo bibrazioak eragin ditzakeen osagai oro diseinatu, egin eta muntatuta egongo da erabilera arruntarekin sortzen duen soinu emari orokorra ahalik eta txikiena izateko eran.

Esleipendunak eskaintzan adierazten dituen ekipo mugikorren zarata emariaren neurketen ziurtagiria aurkeztuko du, horretarako gaitasuna duen laboratorio edo teknikariak egina, Udal Elkarteak gai hori egiaztatzeko egin ditzakeen ikuskatze-lanei kalterik egin gabe. Horrekin batera, neurketa egiteko metodoa, baldintzak eta erabilitako aparailuak adieraziko dira.

Ibilgailuak egokitu eta erabiltzeko egoerarik onenean izango dituzte bere motorra (batez ere gasen ihes-hodia isilarazteko gailua), pneumatikoak, karrozeria, balazta, transmisioak, edukiontziak igotzeko sistema, hondakinak zapaltzeko sistema, edukiontziak garbitzeko sistema eta, oro har, zarata edo bibrazioak eragin ditzakeen osagai oro. Horren helburua da ibilgailuaren motorrak (martxan doanean



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

edo motorra martxan duenean) sortzen duen zaratak ez ditzala gainditu herritarrei eragozpen edo ondoezak sortzeko mugak.

Horiez gain, debekatuta dago:

- a) Hiri barruan gaueko ordutegian klaxona edo soinua eragiteko bestelako gailuak erabiltzea, bidean aurrera egiteko zailtasun edo oztoporen bat baldin badago ere. Abisua soinu bidez eta une batez erabili ahal izango da soilik norbait harrapatzeko arriskua edo talka egiteko arriskua sortzen bada eta bestela saihestu ezin bada.
- b) Ibilgailuaren martxak behartzea eta horrekin zarata sortzea, behar ez dela azeleratzea, pisu gehiegi eramatea edo motorra maldan gora behartzea.
- c) Zarata-isilgailurik gabe ibiltzea; eraginkorrak ez diren, osorik ez dauden, desgokiak diren, hondatuta dauden edo hodi erresonantzaileak dituzten zarata-isilgailuak erabiltzea.

Esleipendunak behar diren neurriak hartuko ditu, kasuan kasu, egiaztatuta dagoen gehiegizko zarata murriztu edo desagerrarazteko, esleitzeko prezioa igo gabe.

Sortzen den zarata eta soinu emaria neurri handi batean ibilgailua erabiltzeko erari eta mantentze-lanen egoerari zor zaie. Horrenbestez:

- Zerbitzuari atxikitako langileek ibilgailuak behar bezala gidatuko dituzte, eta edukiontziak eta ibilgailuaren osagai mekanikoak arretaz manipulatu dituzte. Ahozko adierazpenetan garrasi egitea, eta, oro har, langile horien eginkizunetan zarata gehiegi eragin dezaketen jarduerak, saihestuko dituzte.
- Esleipendunak behar diren zainketa eta mantentzeko lan prebentibo eta zuzentzaileak burutuko ditu, zerbitzuari atxikitako ibilgailuak beti erabiltzeko egoerarik onenean egoteko.

Bide eta kaleetan erabiltzen diren ibilgailuak erraz ikusiko dira eta derrigorrezkoak diren segurtasun sistema guztiak izango dituzte, bai eta, derrigorrezkoak ez izanik ere, arriskuak prebenitzeko komenigarriak direnak ere.

Horrekin batera, ibilgailu guztiak behar diren seinale-sistemak izango dituzte (argi distiratzailak, sistema islatzaileak eta bar), herritarrek ibilgailuak erraz atzeman eta arriskuak saihesteko.

Ibilgailuen pintura kolorea eta errotulazioa esleipendunak proposatu eta Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoek ontzat emandakoa izango da.

Zerbitzuei atxikitako instalazio, ibilgailu eta langileen arropetan ez da inolako propagandarik agertuko. Urola Kostako Udal Elkartearen testu-hitzak eta irudia baizik ez dira agertuko.

Esleipendunak ekipo guztietan irrtati bidezko komunikazio sistemarik egokienak jarriko ditu, lantaldeen arteko eta horien eta arduradunaren arteko koordinazioa ahalik eta onena izateko.

Esleipendunak ezin du zerbitzua ustiatu eta emakida honi atxikitako giza baliabide eta bitarteko materialak erabili kontratu honen objektua betetzeko ez bada.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Esleipendunaren betebeharra da ibilgailuen eta bestelako bitarteko materialen mantentze-lan prebentiboak antolatu eta maiztasunez egitea eta konponketak egitea, ibilgailu guztiak (ordezkoak barne) beti erabiltzeko egoerarik onenean eta segurtasun egoerarik onenean (egileen mantentze-lanetako eskuliburuak aplikatuta) edukitzeko.

Lehiatzaileek zerbitzuari atxikitako ibilgailuen mantentze-lan prebentiboen plana aurkeztu behar dute, ibilgailuak egoerarik onenean egoteko, honako lanak adieraziz: koipeztatzea, olio aldaketak, azterketak eta maiztasun jakin bateko bestelako lanak (egileen mantentze-lanetako eskuliburuetan agertzen direnak barne).

Azpitarratzen dugu garrantzitsua dela lehiatzaileek BENETAN burutuko duten mantentze-lan prebentiboen eskaintza egitea. Plan horrek lanak noiz eta nola egingo diren adieraziko du (egutegia eta ordutegia), eta egutegi eta ordutegi hori ezinbestean koordinatuta egongo da lantalde ezberdinek zerbitzuak eskaintzeko dituzten egutegi eta ordutegiekin.

Esleipendunak ibilgailuak erabiliko ditu egileak emandako erabiltzeko eskuliburuaren argitara, betiere teknika eta segurtasun arau ofizialei eta erabilpen egokirako arauari jarraituz.

Bestalde, lehiatzaileak bere eskaintzan honakoak zehaztuko ditu:

- Ustiaketaren ardura hartzen duen unean esleipendunak zerbitzuaren esku jarriko dituen ibilgailu eta makinen osagaien ordezkoak (motak eta kopuruak) eta eskuko eta tailerreko erremintak.
- Matxurak konpontzeko aurreikusten dituen neurriak, zerbitzuari kalterik egitea saihestuz.

Esleipendunak ibilgailuak garbi eta txukun zainduta edukitzeko betebeharra du. Ibilgailuak garbi eta txukun geldituko dira laneguna amaitzen denean, zikinkeria pilatzea eta hondatzea saihesteko. Horretarako, lanegun bakoitza amaitutakoan esleipendunak ibilgailuak garbituko ditu, garbigarri kimikoekin eta ura presioarekin baliatuz.

Metalezkoak diren zatiak behar adina aldiz pintatuko dira, pintura egokiarekin, korrosioa saihesteko. Zerbitzua eskaintzen hasi eta bost (5) urte igarotzen direnean, zerbitzuari atxikitako ibilgailu guztiak oso-osorik pintatuko dira.

Ibilgailuen egoera eta funtzionamendua Urola Kostako Udal Elkarteko langileek (edo eta eginkizun hori ematen zaien laguntzaile eta profesionalek) maiztasunez ikuskatuko dute, mantentze-lanen eraginkortasuna egiaztatzeko. Esleipendunak ikuskatze lan horiek erraztuko ditu, instalazioetara sartzeko baimena emango du, eskatutako datuak eta kontrol frogak eskura jarriko ditu. Ikuskatze horrek erakusten badu mantentze-lanak ez direla egiten edo ez direla behar bezala egin, Udal Elkarteak lan horiek esleipendunaren kargura egiteko agindua eman ahal izango du.

Kontratua amaitutakoan esleipendunak Urola Kostako Udal Elkarteari itzuliko dizkio harengandik jasotako ibilgailuak, utzitakoan zeuden egoera berean, betiere erabilpen arruntak eta denboraren joanak ibilgailu horiei eragindako narriadura aintzat hartuta.

Esleipendunak ibilgailuak eta beste bitarteko materialak behar bezala mantendu eta zaintzeko betebeharra beteko duela bermatzeko, kontratua amaitu baino hiru (3) hilabete lehenago Urola Kostako Udal Elkarteak egoki irizten duen esku-hartze teknikoa egingo du eta, esleipendunaren kontura, eta atzematen diren akats eta kalteak konpondu eta hondatutako osagaiak ordezkatzeko dira, betiere behar bezala erabili eta mantentzearen ondorioz gertatutako narriadurak alde batera utzita.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Lehiatzaileek beren eskaintzan xehetasun osoz zehaztuko dituzte proposatzen dituzten ibilgailu eta bitarteko teknikoak, honakoak adieraziz:

- Egilea, marka, modeloa eta ezaugarri teknikoak.
- Unitate-kostua: urtekoa, lanegunarena eta lanorduarena.

11. KONTROLATZEKO SISTEMAK

Lehiatzaileek eskaintzan proposatzen duten antolamenduan bide azkarrak aurreikusi behar dituzte Urola Kostako Udal Elkarteak eskatzen dituen datu guztiak garaiz aurkezteko, egindako lanak justifikatzeko nahiz kontratatutako zerbitzu publikoa kontrolatzeko komenigarri jotzen dituen kontrolak egiteko. Gailu eta sistema horiek (informatikoak edo bestelakoak) bateragarriak izango dira Udal Elkarteak eskura dituenekin.

Horrez gain, esleipendunak behar diren bitartekoak jarriko ditu (telefono mugikorra, faxa, posta elektronikoa eta abar) arduradunaren eta Urola Kostako Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoen arteko komunikazio sistema uneoro azkarra eta eraginkorra izango dela bermatzeko.

Kontratututako zerbitzua Urola Kostako Udal Elkartearen (Zerbitzu Teknikoaren bidez) ikuskatze eta zaintzapean egongo da uneoro, eta egoki eta beharrezko irizten dituen berrikustek egingo ditu, edozein une eta lekutan. Udal Elkarteak horretarako izendatzen duen ikuskatzaileak sarbidea izango du zerbitzuaren lokal eta instalaziotara eta eskatzen dituen datuak emango zaizkio. Urola Kostako Udal Elkarteak, ikuskatze lanen ondorioz, jarraibide eta agindu zehatzak eman ahal izango ditu eta esleipendunak bete egin beharko ditu.

Esleipendunak Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoek emandako agindu eta jarraibideak hartu eta bete egin behar ditu. Horretarako, instalazio finkoetan aginduen liburu bat egongo da, uneoro kontratuaren bi aldean eskura egongo dena. Faxez nahiz emailez bidaltzen diren agindu eta jarraibideak liburu horri erantsiko zaizkio. Urola Kostako Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoek liburu hori erabiliko dute aginduak idatziz emateko.

Urola Kostako Udal Elkarteko lurralde eremuko udaletako zerbitzu teknikoek nahiz udaltzaingoen kontratuaren jabearen arduradunarekin harremanetan jartzeko komunikazio sistema erabili ahal izango dute, zerbitzua burutzearen inguruko alderdietarako (anomaliak, gorabeherak, gainezka dauden edukiontzien zerrendak eta abar). Nolanahi ere den, arduradunak komunikazio horiek berehala Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoei jakinaraziko dizkio, eta aginduen liburuan idatziko ditu udal teknikariek eta udaltzainek emandako jarraibideak.

Esleipendunak Urola Kostako Udal Elkarteak eskatzen dizkion agiri guztiak erakutsi behar dizkio, batez ere honakoak: gizarte aseguruari buruzkoak, lan arriskuen prebentzioari eta lan istripuei buruzkoak, aseguru polizak eta instalazio eta materialei buruzkoak. Halaber, Urola kostako Udal Elkartearen erantzukizun subsidiarioa saihesteko helburua duten eginbide guztiak burutzen utzi behar dio.

Esleipendunak Urola Kostako Udal Elkarteak agintzen dizkion zerbitzuarekin zerikusia duten txosten eta azterketa-lanak egin behar ditu.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

11.1.- Aplikazio informatikoa

Urola Kostako Udal Elkarteak aplikazio informatiko bat jarri ahal izango du esleipendunaren esku. Zerbitzua eraginkortasunez kontrolatu eta kudeatzeko, esleipendunak aplikazio informatiko hori derrigorrez erabili beharko du. Erabiliko den aplikazioa Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritzak garatutakoa izango da, edo antzekoa.

Tresna informatiko horrek, alde batetik, aukera emango dio esleipendunari zerbitzua zehatz mehatz kontrolatzeko eta errazago kudeatzeko, eta, beste alde batetik, Urola Kostako Udal Elkarteari aukera emango dio kontratatutako lanak zer eta nola egin diren ezagutzeko eta egoki iritzitako kontrolak egiteko.

Horretarako, esleipendunak terminal eramangarriak (PDA) jarriko ditu lantaldeen eskura datuak sartzeko, eta, gutxienez, ordenagailu bat, programa informatikoa instalatzeko, eta bitarteko periferiko egokiak (inprimagailua, telefono konexioa eta abar). Horiekin programak jasotzen dituen datuak tratatu eta kontsultak egingo ditu.

Esleipendunak tresna informatiko hori erabili beharko du; orain indarrean dagoen bertsioa erabili beharko du, eta, etorkizunean, hobetzeko egiten diren bertsioak. Halaber, tresna hori erabiliko du ematen zaizkion jarraibideen arabera eta ahalegin eta arreta osoa eskainiko du tresna horri probetxurik handiena ateratzeko.

Gorago adierazitako aplikazio informatikoaren erabilpenari eta mantentze-lanei dagokienez, esleipendunak betebeharrak hauek ditu:

- Zerbitzua eskaintzen hasi aurretik, honako datuak kargatuko dira aplikazioan: edukiontzien kokapena, jarri diren edukiontzien datuak, lan ibilbideak (hondakinak biltzeko, garbitzeko...), edukiontzi bakoitza husteko eta garbitzeko maiztasuna eta abar.
- Edukiontziaren kokapena edo husteko eta garbitzeko maiztasuna aldatzen bada, datuak Urola Kostako Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoek eguneratuko dituzte.
- Kontratatutako zerbitzuak eskaintzen hasitakoan, esleipendunaren langileek (bilketa zerbitzuetako, garbiketa-lanetako edo mantentze-lanetako langileak) zerbitzuko lanak egiten ari direla, egindako lanari buruzko datu guztiak sartuko dituzte terminal mugikorrean (PDA), hala nola: lan edo zerbitzu mota; data; matrikula eta ibilgailuko langileak; lana egiteko ordua; kilometroak eta horometroa lanegunaren hasieran eta amaieran; egindako zama-lan edo porteak; kontsumoa; gorabehera eta matxurak; hustu, garbitu edo konpondu diren edukiontziak; atzemandako gorabeherak (kartoia ezarritako ordutegi eta egutegitik kanpora, hiri hondakinak ez diren hondakinak, gainezka egindako edukiontziak, anomaliak edukiontzietan...) eta abar. Ibilbidea edo lana amaitutakoan langileek arduradunari PDA entregatuko diote.

Programa informatikoa martxan jarri eta probatzeko epearen amaitu ondoren, esleipendunaren langileek datuak PDAn sartzen ez badituzte edo nabarmen oker edo akats askorekin sartzen badituzte, esleipendunarena izango da egoerari irtenbidea emateko erantzukizuna (langileei prestakuntza egokia eta laguntza emateko), eta, azken buruan, egoerak berean jarraitzen badu langile horiek ordezkatu egin beharko ditu datuak sartzeko behar besteko gaitasun eta ezagupenak dituzten beste langile batzuekin.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Esleipendunari prezioa ordaintzeari dagokionez, kontratatutako lana ez dela justifikatu iritziko zaio datuak PDAn sartu ez badira, datuak oker edo akatsekin sartu badira eta, orobat, kudeatzeko tresna ahalik eta gehien aprobetxatzeko egin beharrekoak egin ez badira.

- Arduradunak egunero, goizean (lehen orduan) PDA-tan sartutako datuak sistemaren zerbitzarira bidaliko ditu bere terminaletik.
- Datuak zerbitzarira kargatu ondoren, arduradunak datuak balioztatu egin beharko ditu eta, jarraian, lanen aurreikuspena egin beharko du (edukiontzien mantentze-lanak, hondakin handiak biltzeko lanak eta abar). Datuak balioztatu eta lanen aurreikuspena egunero egingo da, goizeko lehen orduan.
- Horrez gain, Udal Elkarteko teknikariek zerbitzarian kargatuko dituzte jasotzen dituzten eskariak, atzemandako arazoak, lan aginduak eta abar. Beraz, arduradunak egunero begiratu beharko ditu datu horiek, lanen aurreikuspena egin eta egokitzeke.
- Esleipendunak lankidetzara osoa eman beharko dio Udal Elkarteari tresna informatikoa martxan jartzeko eta martxan dagoenean mantentzeko lanak egiteko. Horretarako, besteak beste, langileak prestatu beharko ditu, hardwarea eskura izan beharko du eta konexio egokia izan beharko du.

Esleipendunari dagokio hondatu daitezkeen terminal eramangarriak eta bestelako osagarriak zaindu eta ordezkatzeari.

12. BITARTEKO MATERIALAK ITZULTZEA

Emakidari atxikitako bitarteko materialak (ibilgailuak, edukiontziak, garbitzeko ekipoak eta abar) esleipendunaren jabetzakoak izango dira kontratua indarrean dagoen epearen barruan. Kontratua amaitzen denean bitarteko material horiek guztiak Udal Elkartearen eskuetara itzuliko dira.

13. KALTEAK BESTE BATZUEI

Esleipenduna izango da kontratua burutzeko egin beharreko lanen ondorioz beste batzuei eragindako kalte eta galera ororen erantzule. Horretarako, kontratua burutzeak dakartzan arriskuak estaltzeko erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat kontratatu behar du, gutxienez 600.000 euroko estaldurarekin.

Besteak beste, eta bereziki, honako kalte eta galerak esleipendunaren erantzukizuna izango dira oso-oso-oso eta Udal Elkarteak ez du inolako erantzukizunik izango: emakidari atxikitako edukiontziak istripuz edo nahita mugitzearen ondorioz gertatutako kolpe edo inpaktuak, arrazoia edozein dela era eta arrazoiak bat edo ugari izanik ere (haizearen eragina, balaztatze sistemak eta edukiontzia ez mugitzeko eta babesteko sistemak huts egitea, aldapa handian jarrita egotea, kale istiluak...).

Esleipendunak kudeatu eta bideratuko ditu edukiontziak manipulatzeko maniobrek (hustu, garbitu, mantentze-lanak egin...) edo kolpe eta inpaktuek (haizeagatik edo beste edozein arrazoirengatik) beste batzuei eragindako kalteen erreklamazioak. Esleipendunak bere irizpideen arabera erabakiko ditu erreklamazio horiek.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

14. ZERBITZUARI BURUZKO BESTE ALDERDI BATZUK

- Debehatuta dago esleipendunaren langileek hondakinen artean gauzak bilatzea, hautatzea edo bestelako edozein manipulazio-lan egitea.
- Esleipendunaren langileek balio handiko objektuak topatzen badituzte, objektu horiek Urola Kostako Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoen esku utziko dituzte, jabeak direla egiaztatzen dutenei itzultzeko.
- Oharkabean edo arduragabekeriak norbaiti objektu pertsonalen bat edukiontzira erortzen bazaio (giltzak, kartera, erlojua, bitxiak, dokumentuak eta abar) eta objektu hori oraindik edukiontzian dagoela jakiteko zantzu garbiak baldin badaude, esleipendunak laguntza osoa eskainiko du objektu horiek berreskuratzeko, Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoen jarraibideen haritik.
- Biltzen den material guztia Urola Kostako Udal Elkarteak Urteta zabortegean duen baskulan pisatuko da, edo aurrez Udal Elkarteak baimendutako besteren batean (Eusko Jaurlaritzako Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailak emandako ikuskatzeko kontrol metrologikoaren ziurtagiria izan beharko du). Urtetako zabortegeko baskulako pisatze-lanak doan izango dira. Beste baskula-zubietan egiten direnak, aldiz, kontratuaren jabearen kontura egingo dira.

15. USTIAKETA EGITASMOA

Lehiatzaileek beren eskaintza teknikoa eta ekonomikoa zehaztu, arrazoitu eta baloratu egin behar dute. Horretarako, Urola Kostako Udal Elkartea osatzen duten udalerrietan papera, kartoia, ontzi arinak eta pilak gaika bildu eta garraiatzeko zerbitzuak kudeatzeko Ustiaketa Egitasmoa idatzi behar dute.

Egitasmoa aztertu ondotik, Urola Kostako Udal Elkarteko kontratazio organoak onartzeko erabakia hartuko du. Egitasmo horren onarpena berariaz jasoko da esleitzeko erabakian eta horren haritik egiten den kontratuan. Zerbitzuak ustiatzeko lanak egingo dira aurkeztu eta onartutako egitasmoari, eskakizun tekniko zehatzen orri hauei eta kontratua esleitzeko kontratu-agirian zehatzen denari estu-estu jarraituz.

Enpresa lehiatzaileei dagokie sistemarik eraginkorrenak proposatzea, gorago aipatutako ustiatzeko lanak proposatutako bitartekoekin bideratzeko. Zehaztasun eta xehetasun osoz adieraziko dira zerbitzuak antolatzeko era, bitartekoak eta langileak.

Lehiatzaileek memoria tekniko bat aurkeztu behar dute, ustiatzeko lanak antolatzeko eta egiteko era xehetasun osoz agertzen duena. Memoria horrek honako alderdiak landu behar ditu, gutxienez:

- Baldintzen orri hauen **3. baldintzan** zehaztutako derrigorrezko zerbitzu bakoitzaren egitasmoa (antolamendua, bitartekoak eta langileak).
 - Langileen kudeaketa, baldintzen orri hauen **9. baldintzan** ezarritakoarekin bat etorritik.
 - Lehiatzaileak proposatzen dituen ibilgailu eta bitarteko materialak, baldintzen orri hauen **11. baldintzan** ezarritakoarekin bat etorritik.
-



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

- Instalazio finakoak mantentzeko plana.
- Kontratuaren hasieratik, eta pleguetan eskatzen den makinaria eta altzariak ailegatu arterako denboraldian jarraituko den ustiaketa-planaren definizio zehatza. Denboraldi horren luzapena ere zehaztu beharko da.
- Zerbitzuak hobeto deskribatzeko egoki iritzitako bestelako datuak.